



EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN 2015.

URTERAKO AURREKONTU OROKORREN LEGE-

AURREPROIEKTUAREN GENEROAREN

ARABERAKO ERAGINAREN TXOSTENA



Or.

1. SARRERA	3
1.1. Egoera ekonomikoa eta gobernu-lehentasunak.	3
1.2. Kontzeptu-esparrua	6
1.3. Arau-esparrua	7
1.4 Proiektuaren deskribapen orokorra	8
2. EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA, ESKU-HARTZEKO LEHENTASUNEZKO ESPARRUEI LOTUTA	11
2.1 Demografia	13
2.2 Baliabide ekonomikoetarako sarbidea eta kontrola	14
2.3 Gizarte-baliabideetarako sarbidea eta kontrola	21
2.4 Parte-hartze soziopolitiko eta eragina	26
2.5 Erantzunkidetasunezko gizarte-antolakuntza	31
2.6 Indarkeria	32
3. EUSKAL ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN SEXUAREN ARABERAKO ORDEZKARITZARI BURUZKO AZTERKETA ETA PRESTAKUNTZA BEREINTASUNEAN	33
4. GASTUAREN AZTERKETA. AURREKONTU-PROGRAMEN AZTERKETA	43
5. DIRU-SARRERAREN AZTERKETA.	52
6. GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA	57
7. EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BEREINTASUNA BULTZATZEKO ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK. AURREKONTUAK GENERO-IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA	63
8. AURREKONTU-PROGRAMEN ERANSKINAK, SAILKA	
8.1 eranskina: Lehendakaritza	66
8.2 eranskina: Herri Administrazio eta Justizia Saila	69
8.3 eranskina: Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila	71
8.4 Eranskina: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila	72
8.5 eranskina: Ogasun eta Finantza Saila	75
8.6 eranskina: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	76
8.7 eranskina: Segurtasun Saila	80
8.8 eranskina: Osasun Saila	81
8.9 eranskina: Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	82



1.- HITZAURREA.

1.1. EGOERA EKONOMIKOA ETA GOBERNU-LEHENTASUNAK

Aurrekontu hauen testuinguruan, bi faktorek baldintzatzen dute bereziki Gobernuaren estrategia eta 2015eko programazioa: (1) hazkunde ertaineko testuinguru makroekonomikoa, familiak eta enpresak gogor jo dituen atzeraldi sakon eta luze baten ondoren eta (2) Europako gobernantza ekonomikoaren arauak bete beharra.

Testuinguru horrek EAEko ekonomiaren hazkunde neurritsuko egoera makroekonomikora garamatza. Barne Produktu Gordina 2014an %1 eta 2015ean %1,7 haztea aurreikusten da, eta enplegu-mailak bere horretan jarraitzea 2014an, eta %0,6 handitzea 2015ean (enplegua lanaldi osoko lanpostutan neurtuta, eta urteko batez bestekoa kontuan hartuta).

GOBERNU-EKINTZAREN HELBURUAK ETA ESTRATEGIAK.

-1 HAZKUNDE IRAUNKORRA ETA HORREK HERRITARRENGAN DUEN ERAGINA BERRESKURATZEA.

Gobernuak bere bi helburuei eusten die: herritarren oinarrizko premiak asetzea eta hazkundera eta enplegua sortzeko palanka izatea.

-2 HERRITARREN OINARRIZKO PREMIAK ASETZEA, EZINBESTEKO OINARRIA

- **osasun-sistema:** herritarra, eragile aktiboa. Pertsonak osasun-sistema publikoaren ardatz nagusi gisa jartzea, eta jarduketak herritarren osasun-beharretara bideratzea. Pertsonen autonomia sustatuko da, erantzukizuna har dezaten eta beren osasunari eta eritasunari buruzko erabakiak har ditzaten.

- **hezkuntza-sistema, ikasleen aniztasuna eta bikaintasuna bultzatzen.** Eusko Jaurlaritzak ikastetxe gehiagotara zabalduko du hezkuntza-sisteman hezkidetzatza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida-plana, jarrera diskriminatzaileak ezabatzeko eta elkarbizitza baketsua sustatzeko. Lehendakaritzarekin batera bultzatuko du Bake eta Bizikidetzatza Plana ikasgeletan. Genero berdintasunerako Plana ezartzen ere lagunduko da.



- **hizkuntza-politika: Euskara, Jaurlaritzaren elementu estrategikoa eta zeharkakoa.** Gobernuak legegintzaldi honetan izango duen jarduera euskararen agenda estrategikoan zehaztuta dago (2013-2016)

- **kultura: giza garapenaren funtsezko elementua.** Kultura pertsonen erabateko garapenaren aldeko apustua den heinean, funtsezko gaia da lelo nagusitzat "pertsonak helburu" duen legegintzaldi honetan.

- **gizarte-laguntza behartsuenei.** Gizarte-laguntzako politika, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean bilduta dagoena, kohesio-tresna garrantzitsu bihurtu da krisi ekonomikoaren aurrean, eta Euskadiri berdintasunezko gizarte-profilari eutsi ahal izatea ahalbidetu dio, Europar Batasunean dauden pobrezia- eta desberdintasun-adierazleak baino txikiagoak izanik. Eskubide bikoitzeko eredu bat da, batetik, bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko nahikoak diren baliabide ekonomikoak lortzeko eskubidea (Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta, Etxebizitzaren Gastuetarako Prestazio Osagarria, eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak) eta, bestetik, gizarteratzera eta laneratzera bideratutako laguntza pertsonalizatuak izateko eskubidea, marjinazioaren kronifikazioa saihestuz eta gizarteratzea bultzatuz.

- **etxebizitza: zeregin soziala eta enpleguan duen eragina.** Etxebizitza-politikaren helburua, merkatu librean etxebizitza bat eskuratu ezin dutenei, bereziki krisi ekonomikoaren ondorioz gizarte-premiako egoeran daudenei, etxebizitza duina eta egokia eskaintzea da. Helburu hori lortzeko tresna nagusia epe ertain-luzerako alokairuaren lehentasunezko sustapena da, lehentasunezko kolektiboek etxebizitza lor dezaten bultzatuz.

- 3 HAZKUNDEA ETA ENPLEGUA

- **enplegu-politika aktiboak.** 2015ean arreta berezia eskainiko zaie gazteak eta gizartean aukera gutxien duten kolektiboak (desgaituak, 45 urtetik gorakoak, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenak eta iraupen luzeko langabeak) lan-merkatuan sartzen laguntzen duten politika publikoei, baita lana eta familia uztartzen laguntzen duten neurrien sustapenari ere. Gazteen enpleguari emango zaion laguntza gazteen enplegarritasunera eta laneratzera bideratuko da; horretarako, lehen lan-aukera, autoenplegurako laguntza eta bikaintasuneko eta diziplina anitzeko prestakuntza sustatuko dira.

- **lehiakortasunezko egitura-politikak enplegua sortzeko eta hazteko palanka gisa.** Urrats berriak sustatuko dira berrikuntza adimentsua egiteko estrategian,



industriaren eginkizuna berreskuratuko da, enpresa-ekimenak bultzatuko dira, eta nazioartekotzea areagotuko da enpresa txiki eta ertainetan.

- **enplegua bultzatzeko jarduera ekonomikoa mantentzeko/berraktibatze politikak.** Neurriak garatuko dira produkzio-sektorea finantzatzeko eta merkataritza-jarduera nahiz 2020ko euskal turismoaren plan estrategikoa sustatzeko. Lehen sektorea indartzea eta landa- nahiz itsasertz-ingurunea suspertzea

-4 GARAPENAREN IRAUNKORTASUN-OSAGAIA

- **lurralde-politika orekatu eta iraunkorra.** Hiri eta herri atseginago, osasungarriago eta erakargarriagoak izatea, lana eta bizitokia hurbiltzea, hobeki zainduta egonik guztiontzat irisgarriagoa den ingurumen-ingurua edukitzea, gure enplegu- eta etxebizitza-aukerak hobetzea eta azpiegitura eraginkorrak eta integratuak izatea ahalbidetuko dituen lurralde-plangintza garatzen egingo da lan.

- **energia-politika hazkundearen, lehiakortasunaren eta iraunkortasunaren palanka gisa.** Energia- eta ingurumen-erronka handiak aprobetxatu nahi ditu Euskadiko ekonomiaren hazkunde-aukera on gisa, garapen teknologikoaren, enpresen arteko lankidetzaren eta negozio-ildo berrien identifikazioaren bitartez.

- **ingurumen-politika arduratsua, ingurumen-aldagaiari balioa ematen diona lehiakortasunaren alderdi gisa.** Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-politikaren oinarritzko orientazioa da pertsona guztiek, gaur egungoek eta etorkizunekoek, bizimodu duina izateko eskubidea izatea, kalitatezko ingurune batean.

- **garraio iraunkorrerako politika.** Pertsonen mugikortasun fisikoaren arloan dituzten beharrak optimizatzeko lan egingo da, eta, horretarako, garraio-azpiegituren kudeaketa eta garapen eraginkor eta efizientea sustatuko da.

- **balioa sortzen duen eta gobernantza berriaren printzipioen bitartez bideratuta dagoen administrazio-modua.** Eusko Jaurlaritzak enpresa-sektore publikoari dimentsio berri bat emateko eta berriz egituratzeko estrategia bat jarri du abian, eta Euskadiko Berrikuntza Publikorako Estrategia garatuko du, herritarrei arreta eta zerbitzua emateko eta administrazio publiko guztien arteko elkarreragina lortzeko helburua izango duena.

- **segurtasun publikoa gainerako eskubide eta askatasun publikoak baliatzeko ezinbesteko baldintza gisa.** Herritarrek eskatzen duten segurtasun pertsonala eta soziala bermatzeko, ezinbestekoa da segurtasun-politikak —giza



baliabideen eta baliabide teknikoen antolamendu eraginkorra eta efizientea dutenak— antolatzea.

1.2. Kontzeptu-esparrua

Aurrekontua gobernuaren hautu politikoak jasotzen dituen agiria da, diru-sarrera eta gastuen plangintzaren bitartez garapen eta hazkuntza ekonomikorako helburuak lortzeko erabiltzen den tresna. Aurrekontuen bitartez, lehentasunaz ezartzen ditu eta herritarren premiak betetzeko jarduten du. Horrela bada, aurrekontuen bitartez, enplegua susta daiteke, bai eta prezioen egonkortasuna, hazkuntza ekonomikoa, ingurumenaren iraunkortasuna eta beste hainbat gauza ere. Izan ere, Pregs Govender-ek dioen bezala:

“Aurrekontu publikoak herri baten balioak adierazten ditu: nor estimatzen duen, noren lana balioesten duen, nor saritzen duen horren ondorioz, eta nor, zer eta noren lana ez den balioesten ez saritzen”

“Sexistak ez diruditen erabaki politikoek eragin desberdina izan dezakete emakumeengan eta gizonengan, ondorio hori aurreikusi gabe eta nahi izan gabe ere. Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa egiten da asmo txarrez eragindakoak ez diren ondorioak saihestearren eta politiken kalitate eta eraginkortasuna hobetzearen”.¹

Hori horrela izanik, esan daiteke generoaren araberako eraginaren txostenak herritarren beharrian eta interesak hobeto ezagutzen laguntzen duela eta, horrela, aukera ematen da ikusteko desberdintasunak zein eremutan diren nabarmenago eta, ondorioz, zeinek duen lehentasun handiagoa aginte publikoen esku-hartzea jasotzeko. Aldi berean, agerian geratzen da politika publikoak ez direla generoarekiko neutroak, baizik eta itsu edo sorgorrak. Hau da, ez dituzte kontuan hartzen emakume eta gizonen eginkizun eta jarrerak eta, jakina denez, horiek guztiak zehaztuta daude gizartean: emakumeak ez daude gizonen egoera berean, indar gutxiago baitute ekonomia, gizarte, eta politika alorretan. Horrenbestez, ekintza edo politika jakin batek aukera gutxiago izan dezake emakumeen mesederako izateko edo desberdintasunak murrizteko.

¹ Generoaren araberako eragina ebaluatzeko Europako Batzordearen gida



1.3. Arau-esparrua

Agiri hau **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen** 18-20 artikuluetan xedatutakoa betez egin da eta, bereziki, 19. artikuluan xedatutakoa betez, honakoa baitio: "Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean".

Gainera, 4/2005 Legeak honakoa dio 18.1 artikuluan: "Arauak garatu eta aplikatzerakoan, bai eta planak, programak eta politika publikoak, diru-laguntzen programak eta administrazio-egintzak formulatzeko beste tresna batzuk garatu eta aplikatzerakoan ere, euskal herri-aginteez modu aktiboan izango dute kontuan emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzearen helburua".

Aurrekontuak egiteari dagokionez, honakoa dio Berdintasunerako 4/2005 Legearen 14. artikulua: "Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan".

Bestalde, txosten hau egitean "genero eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko" jarraibideei jarraitu zaie. Horiek, 4/2005 Legea betez, Jaurkitzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren **abuztuaren 21eko 40/2012 EBAZPENEAN** daude xedatuta.



1.4. PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

ADMINISTRAZIO-EGINTZAREN PROPOSAMEN- EDO ARAU-PROIEKTUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

1.- Aipatu administrazio-egintzaren proposamen- edo arau-proiektuaren izena:

Lege-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015eko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onesten dituen.

2.- Araua sustatzen duen saila edo zuzendaritza adierazi:

Gobernu Kontseiluak, Ogasun eta Finantzarako sailburuordeak proposatuta.

3.- Aipatu, hala egokituz gero, proiektuarekin edo proposamenarekin zerikusia duten beste arau, plan eta abar batzuk:

1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena.

1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena.

8/1996 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzena

6/2011 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen.

14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa.

Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bategina, azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia.

1/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, "Tribunal Vasco de Cuentas Públicas" / "Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari" buruzkoa.

2/2004 Legea, Otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeko buruzkoa.

3/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Euskal Unibertsitate Sistemarena.

209/2006 Dekretua, urriaren 17koa, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta ikertzaileen gehigarriko ordainsari-osagarriari buruzkoa.

94/2008 Dekretua, maiatzaren 20koa, Euskal Herriko Unibertsitateari egin beharreko ekarpen arrunta zehazteko irizpideak ezartzen dituen.



13/2012 Legea, ekainaren 28koa, Unibasq - Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziari buruzkoa.

27/1983 Legea, azaroaren 25ekoa, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen arteko harremanei buruzkoa.

2/2007 Legea, martxoaren 23koa, Baliabideen banaketarako eta foru-aldundiek Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak finantzatzeko egin beharreko ekarpenak zehazteko 2007-2011 aldian aplikatuko den metodologiari buruzkoa, bai eta, bertako Azken Xedapena baliatuz, hurrengo ekitaldietan ere, ez bada hurrengo ekitaldietarako metodologia onartzen duen lege berririk sortu.

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Lege Proiektua 2015erako.

2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa; irailaren 28ko 4/2012 Lege Organikoaren bitartez aldatu zen.

5/1982 Legea, maiatzaren 20koa, Euskal Irrati Telebista erakunde publikoa sortzeari buruzkoa.

1/2006 Legea, ekainaren 23koa, Urarena.

3/2007 Legea, apirilaren 20koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Institute Sortzeko eta Arautzekoa, eta 88/2008 Dekretua, maiatzaren 13koa, Etxepare Euskal Institutua / Basque Instituteraren antolakuntza- eta jarduera-araudia onartzen duena.

9/2007 Legea, ekainaren 29koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutua sortzekoa; 159/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren egitura eta antolaketari buruzkoa, eta 160/2011 Dekretua, uztailaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren baliabide pertsonalak eta materialak Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuari atxikitzeko baldintzak arautzen dituen.

1/2012 Legea, otsailaren 2koa, Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzkoa, eta 139/2012 Dekretua, uztailaren 17koa; horren bidez, Lehiaren Euskal Agintaritzaren jarduera noiz hasiko den zehazten da eta Euskal Autonomia Erkidegoaren giza baliabideak erakunde autonomo horri atxikitzeko baldintzak arautzen dira.

5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena.

3/2011 Legea, urriaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzkoa; eta 82/2012 Dekretua, maiatzaren 22koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituen.

6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.

7/2007 Legea, apirilaren 2koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuarena.

14/1988 Legea, urriaren 28koa, Goren-kargudunen lantsariei buruzkoa.

130/1999 Dekretua, otsailaren 23koa, zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta sozietate publikoetako zuzendaritza-taldekieen estatutu pertsonala arautzeko dena.

4/1992 Legea, uztailaren 17koa, Euskal Herriko Poliziari buruzkoa.

15/2012 Legea, ekainaren 28koa, Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzekoa.

2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen Testu Bategina, irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onetsia.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.

136/1996 Dekretua, ekainaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren kontratazio araubideari buruzkoa.

8/2008 Legea, ekainaren 25ekoa, Gizarte Bazterkeriaren aurkako Legea eta Gizarte Eskubideen Agiriaren Legea aldatzen duena.

7/1993 Legea, abenduaren 21ekoa, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea sortzekoa.

18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa.



13/2008 Legea, abenduaren 12koa, Familiei laguntzekoa.

Gobernu Kontseiluak onetsitako jarraibide ekonomikoak (2013ko ekainaren 11ko erabakia) eta Ogasun eta Finantza Sailak onetsitako jarraibide teknikoak, Gobernu Kontseiluak sailei jakinarazitakoak.

Konstituzio Auzitegiaren doktrina aurrekontu orokorren legeei buruz.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren doktrina Euskadiko aurrekontu orokorren legeei buruz.

4.- Arau-proiektuaren edo administrazio-egintzarako proposamenaren helburu orokorrak azaldu:

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2015eko ekitaldirako aurrekontu orokorren onespena eta edukia.

5.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko xedek azaldu:

Egia da Berdintasunerako 4/2005 Legeak 14. artikuluan dioela administrazioek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituztela euren aurrekontuetan baina, hala ere, errealitatean, EAEko 2015erako Aurrekontuen lege-aurreproiektuaren testuak ez du berariazko zenbatekorik izendatzen berdintasun-politiketarako. Salbuespena da Emakunderen aurrekontua, zehaztuta baitago legearen testuan, organismo autonomoaren izaera juridikoa duelako.

Hala ere, aurrekontu orokorren aurreproiektuari, besteak beste, aurrekontu-memoria izenekoak gehitu zaizkio. Memoria horiek modu egituratuan azaltzen dute zein izango den sail bakoitzaren jardura bere eskumeneko jardun-esparruan, 2015eko ekitaldian eta aurrekontu orokorren barruan. Eta memoria horietan jasotzen da, ez beti modu esplizituan, zein diren emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuak. Ikus 8. paragrafoa.- SAILEN AURREKONTU-PROGRAMEN ERANSKINA, txosten honetakoa.



2.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN EGOERAREN AZTERKETA, ESKU-HARTZEKO LEHENTASUNEZKO ESPARRUEI LOTUTA

EAEko biztanleriaren % 51 emakumeak dira, eta gizonezkoak, aldiz, % 49; alabaina, emakumeen eta gizonen egoerari buruzko EAEko datuei erreparatuta, bien arteko harremanek eta posizio sozialak hierarkizatuta jarraitzen dutela ikus daiteke. Horrenbestez:

- Euskadin, emakumeen batez besteko errenta pertsonala gizonena baino 11.000 euro txikiagoa da.
- Soldata-ezberdintasuna kategoría guztietan ikusten da, eta areagotu egiten da zuzendaritza- eta kudeatzailatza-lanpostuetan, bai eta langile profesional-teknikoen artean ere.
- Pobreziaren feminizazioa fenomeno gorakorra da Euskadin.
- Lan-kontraturik ez duten soldatapekoen % 86,6 emakumeak dira. Gizonak gehiengoa dira kontratu finkoetan edo mugagabeetan, eta emakumeak gizonak baino gehiago aldi baterako kontratuetan.
- Genero-rolaren eraginak hezkuntza-prestakuntzaren hautaketa baldintzatzen du.
- IBEX 35ean kotizatzen duten hiru euskal enpresetatik batean ere ez dago emakumezko presidenterik, eta horien administrazio-kontseiluetan eta zuzendaritza nagusietan emakumeen ehunekoa % 20,6 da, batez beste.
- Euskal emakumeek gizonak baino bi ordu gehiago ematen dituzte egunero etxeko lanak egiten; gizonak, berriz, emakumeek baino ordubete gehiago ematen dute enpleguan eta prestakuntzan, eta horren ondorioa da emakumeek aisiarako denbora gutxiago izatea, egunean gizonak baino ordubete gutxiago.
- Gizonen % 3,1ek baino ez du diru-laguntza eskatu seme-alabak zaintzeagatiko eszedentzia hartzeagatik.
- Ordaintzen ez den etxeko lana BPGaren % 28,7 izango litzateke. Emakumeek egiten dute ekoizpen horren % 72 inguru.
- 2011. urtean, emakumeen % 18k esan duenez, azken urtean, indarkeria ondorioztatu edo tekniko gisa planteatu dena jasan behar izan du, sarritan edo batzuetan; hamarretik hiruk, berriz, egunen batean.

Atal honetan, aurrekontu-programen eraginak dituen gizarte-testuingurua kontuan hartuta emakumeek eta gizonak EAEn duten egoeraren diagnostika biltzen da. Horrela, irizpide jakin batzuen



arabera antolatuta, antzeman diren sexuaren ondoriozko ezberdintasunak jaso dira. Diagnosi honek, gero, aukera emango du balioztatzeko 2015. urterako aurrekontuek eragin positiboa edo negatiboa izango duten antzemandako ezberdintasunak murrizten edo kentzen, eta Euskadiko gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzen.

Aipatzen diren adierazleak erabakitzeko, Berdintasunari buruzko 4/2005 Legean, Berdintasunerako VI. Planean eta 40/2012 Ebazpenean ezarritako jarraibideak kontuan hartu dira, eta honako hauek dira:

- 1.1. DEMOGRAFIA
- 1.2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA
 - 1.2.1. Ekoizte-lana eta autonomia ekonomikoa
 - 1.2.2. Ugaltze-lana
 - 1.2.3. Pobrezia eta gizarte-bazterketa
- 1.3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA
 - 1.3.1. Hezkuntza-baliabideak
 - 1.3.2. Osasun-baliabideak
 - 1.3.3. Kultura- eta kirol-baliabideak
- 1.4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA
 - 1.4.1. Parte-hartzea erakundeetan
 - 1.4.2. Parte-hartzea beste organo batzuetan
- 1.5. GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA
 - 1.5.1. Denboraren erabilera
 - 1.5.2. Zaintzarako zerbitzuak
- 1.6. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

Honako iturri hauek erabili dira egiteko:

- **Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak 2013, Emakunde.**
http://www.emakunde.euskadi.net/u72-20010/es/contenidos/informacion/cifras_ant/es_emakunde/adjuntos/cifras_2012_es.pdf
- **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, Eustat.**
http://www.eustat.es/estadisticas/idioma_c/tipo_10/arbola.html#axzz2HNFazcrw


- Iturri hauek ere erabili dira:

- Euskal Autonomia Erkidegoko 2012ko Txosten Sozioekonomikoa
- Emakumeak eta gizonak Euskadin. 2012. Eustat
- Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta, 2012.

1. DEMOGRAFIA: EAE


BIZTANLEAK EAE-N
2.193.093 pertsona

■ Mujeres
 ■ Hombres




2012ko datuen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoan 2.193.093 biztanle daude eta horietatik 1.122.655 **emakumeak** dira, hau da, % **51,2**. Jatorriz atzerriko biztanleak 151.894 dira (% 6,9).

2013. urtean Euskadin 890.800 etxeko unitate zeuden eta, batez beste, etxeko unitate bakoitzean 2,41 kide zeuden. Estatuko batez bestekoarekin alderatuta (2,53 pertsona), EAEkoa da daturik txikienetakoa.

Esperanza de vida al nacimiento por sexo


Esan behar da adierazle hori nabarmen handitu dela Euskal Autonomia Erkidegoan hamar urte baino zertxobait gehiagoan; izan ere, 2000. urtean euskal herritarren bizi-itxaropena 75,87 urte zen gizonentzat eta 83,89 emakumeentzat; baina, 2011. urtean, hurrenez hurren, 79,25 eta 85,65 da. EB-27ko herrialde guztietako handiena da azken zifra hori. Hala ere, 6,4 urteko alde hori zehaztu egin behar da, **desgaitasunik gabe bizitzeko itxaropena txikiagoa delako emakumeen artean gizonen artean baino.**


Evolución de la edad media de maternidad


Azken hamarkadetan ama izateko batez besteko adina atzeratu egin da: 1975. urtean 28,8 urtekoa zen, eta 2012. urtean, 32,23 urtekoa. Autonomia-erkidego guztietatik datu altuena da, Estatu osoko batezbestekoa baino urtebete baino gehiago. Seme-alabak jaiotzean 30 eta 34 urte artean zituzten emakumeen kopurua bi aldiz handiagoa izan da: 42,5; gainera, seme-alabak izan dituzten emakumeen bigarren adin-tarte ohikoena 35 eta 39 urte artekoa izan da.

2. BALIABIDE EKONOMIKOETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA.


2.1. EKOIZTE-LANA ETA AUTONOMIA EKONOMIKOA

2.1.1 JARDUERA TASA




Jarduera-tasaren bilakaerak agerian uzten du emakumeak pixkanaka laneratuz joan direla eta bi sexuen arteko aldea murriztu dela; dena den, bien artean oraindik 13,7 puntuko aldea dago.

Azken bi hamarkadetan, emakumezkoen tasa 11 puntu goratu da; gizonezkoena, berriz, 5 jaitsi. **Adinean zenbat eta gorago egin, orduan eta handiagoa da genero-tartea.** 16-24 urtekoei dagokienez, genero-tartea desagertu egin da 2012an. Esan dezakegu, hortaz, belaunaldi berrietako emakumeak eta gizonak antzeko proportzioan sartzen direla lan merkatura.





Prestakuntza-maila handiagoak generoaren arabera berdintasunik eza murrizten laguntzen du lan-merkatura sartzeko garaian. Lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen enplegu-tasa gizonen tasaren erdia da. Maila ertaineko ikasketak dituztenen artean ere gertatzen da genero-hesia, baina ez goi-mailako ikasketak dituztenen artean. **Prestakuntza handitu ahala, berdindu egiten dira emakumeen eta gizonen enplegu-tasak.**





Oro har, eta seme-alabak edukitzean jarduera-tasa orokorrak pixkanaka gora egiten duen arren, emakumeen eta gizonen tasen arteko aldeak pixkanaka gora egin du seme-alabak edukitzearekin batera, ugalketa-lanaren zama handiena oraindik ere emakumeek dutelako EAEko familietan. Seme-alaba bi edo gehiago dituztenek enplegu-tasa handiena dute, sexua gorabehera; emakumeen eta gizonen arteko alde handiena ere hor gertatzen da.

2.1.2 ENPLEGU-TASA



Jarduera-tasarekin gertatzen den bezala, emakume eta gizonen artean enpleguan dauden aldeak adinarean, ikasketa-mailaren eta ardurapean daukaten seme-alaba kopuruaren arabera aldatzen dira. Ia ez dago genero-alderik 35 urtetik beherakoan artean (are gehiago, emakumeen enplegu-tasa gizonena baino zertxobait handiagoa da 16-24 urte dituztenen artean); 35 urtetik gora, berriz, genero-aldea nabarmen handitzen da (batez ere 45-54 adin-tartean). 2012an, lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen enplegu-tasa gizonen tasaren erdia da.

Maila ertaineko ikasketak dituztenen artean ere gertatzen da genero-hesia, baina ez goi-mailako ikasketak dituztenen artean. Kualifikazio txikiagoa behar duten enpleguetan, genero-aldeak handiagoak dira; ikasketak-maila handiagoak izateak, berriz, nabarmen murrizten ditu genero-aldeak, ikasketak-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta berdintasun handiagoa dagoelako emakumeen eta gizonen enplegu-tasen artean. Are gehiago, **goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen enplegu-tasa gizonena baino pixka bat handiagoa izan da.**



Jarduera-sektorean, alde handiak daude sexuaren arabera.

Eremu askotan oraindik gizonetakoak dira nagusi: eraikuntzan edo industrian, adibidez; zerbitzuen sektorean, berriz, batez ere emakumeek egiten dute lan. Administrazio publikoa da emakume gehien duen jardueradarra (% 31,9) da, eta, gero, merkataritza (% 25,9).

Hezkuntza publikoa enplegatu gehien dituen esparruetako bat da, eta bertan dihardu emakumeen kopuru handienak. Irakaskuntza oso feminizatuta dagoen esparrua da, nahiz eta gizonak nagusi diren Lanbide Heziketan, unibertsitate-ikasketetan eta kirolari lotutako irakaskuntzetan. Espero bezala, zaintzari buruzko genero-aginduari lotuta dagoelako, haur-hezkuntzan dago emakume landunen ehuneko handiena (% 91,5).

Osasun publikoan 10 landunetik 7 emakumeak dira. Sektore honetan argi ikusten da oraindik ere hor daudela genero-rol tradizionalak. Emaginen, erizainen eta erizaintza-laguntzaileen artean 10etik 9 emakumeak dira; mantentze-zerbitzuetan, aldiz, 10etik 9, gizonak. Gehien feminizatuta dagoen lan-eremua gizarte-zerbitzuena da. 10 lagunetik 7 emakumeak dira, eta kopuru hori 9raino heltzen da garbiketa-esparruan, klinika-laguntzaileen artean eta gizarte-langileen artean.


Krisi ekonomikoak zerbitzu-sektoreari eragiten badio, kalte handia egingo dio emakumeen okupazioari, emakumeen % 86,9k sektore horretan egiten baitu lan.

2.1.3 LANGABEZIA TASA.


2012an, Lanbide-ren bulegoetan erregistratuta zeuden langabeen kopurua 169.083 zen, eta kopuru hori % 16,3 handitu da azken urtean.

Langabezia-datuak langabeen sexuaren arabera aztertzean, ikusten da oro har oso antzekoa dela gizonen eta emakumeen kopurua. Hala ere, aldeak ikusten dira batez ere herriararren adin-taldeari eta prestakuntza-mailari dagokienez. Alde horretatik, emakumeak gizonen gainetik daude 55-64 urteko herriararren artean izandako langabezia-kopuruei dagokienez (% 55,4 emakumeak eta % 44,6 gizonak), hala nola unibertsitate-mailako prestakuntza dutenen artean (% 63,9

Evolución Tasa de paro


**2.1.4 ETXEBIZITZA ETA GAZTEEN EMANTZIPAZIOA**

Necesidad de vivienda por edad



Etxebizitza-beharrizan handiena duen adin-tartea 18-44 urte bitartekoa da, bai gizonen artean eta bai emakumeen artean. Adin-tarte horretan 108.131 eskatzaile daude eta horietatik 48.029 emakumeak dira eta 60.102 gizonak; beraz, % 44,4 emakumeak dira eta % 55,5 gizonak. Eskareri dagokionez, alderik handiena 35-44 urteko tartean gertatzen da. Baina premia 25-34 urterekin, bi kasuetan.

Necesidad de vivienda por nivel de instrucción




Prestakuntzari dagokionez, etxebizitza eskatzen duten emakume eta gizonen artean ezberdintasun handiak daude. Ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, gizonak % 72,3 dira; aldiz, unibertsitateko ikasketak dituzten pertsonen artean, % 40,3 baino ez dira gizonak.

2.1.5 ERRENTA PERTSONALA




Renta media personal de trabajo



Azken urteotako batez besteko errenta pertsonalaren bilakaera aztertzen badugu, argi ikusiko dugu askoz txikiagoa izan dela emakumeena gizonena baino (11.000 euro inguru gutxiago).


Genero-hesiak gora egin du, eta adin-talde guztietan mantendu da. Adinean aurrera egin ahala, aldea handiagoa, eta erretiroa hartzeko adinetik aurrera, berriz behera egiten du.

Renta personal de trabajo por situación profesional




Emakumeen eta gizonen arteko soldata-ezberdintasuna kategoria guztietan ikusten da, eta areagotu egiten da zuzendaritza- eta kudeatzaileratza-lanpostuetan, baita langile profesional-teknikoen artean ere. Jarduera-sektoreka, genero-aldea handitu egin da 2010. urtean, 2009. urtearekin alderatuta: 2010ean 7.003 euro ziren, eta aurreko urtean 6.387. Ezberdintasun handienak zerbitzuen sektorean gertatzen dira, hau da, emakume gehien dituen sektorean. Soldaten arteko ezberdintasun handienak kontratu mugagabea duten pertsonen artean gertatzen dira; 2010. urtean, aurreko urteetan baino gehiago. Iraupen jakineko kontratuekin lotutakoak dira soldata-berdintasunera hurbiltzen gaituzten datu bakarrak (berdintasunera iristen ez garren arren); kontratu mota horietan urtean 1.500 euro ingurukoa da genero-aldea.

2.1.6 SOLDATA DESBERDINTASUNAK, LANEKO KOLOKATASUNA ETA EZ-AKTIBOTASUNA



2011. urtean, kontraturik gabeko soldatako hamar lagunetik bederatzia emakumeak izan ziren (% 86,6). Era berean, kontratu finkoa edo mugagabea duten emakumeen ehunekoa gizonena baino txikiagoa da, baina haiek baino gehiago dira aldi baterako kontratuei dagokienez (% 53,7). Neurritz gain okupaturako pertsonen ia % 75 (eguneko 8 lanordu baino gehiago) gizonak dira; era berean okupatuak % 55 dira (eguneko 8 lanordu), eta gainerako okupatuei dagokienez (eguneko 8 lanordu baino gutxiago), gizonen proportzioa ez da iristen % 20ra. Horrenbestez, lanaldi partzialean emakumeak dira nagusi; izan ere, **kontratu partziala dutenen % 82,3 emakumeak dira.**

Laneko kolokatasunak emakumeengan gizonengan baino eragin handiagoa izaten jarraitzen du. Aldi baterako kontratua duten edo kontraturik ez duten soldatako emakumeak % 26,5 dira eta, gizonen kasuan, aldiz, % 19,1. 2007. urtean emakumeen soldata gizonena baino % 26,5 txikiagoa da




2010ean, ez-aktiboen % 60 emakumeak ziren. Ez-aktibotasun horren arrazoi nagusia etxeko lanetan aritzea da (emakume ez-aktiboen % 43), eta arrazoi horren atzetik, erretiroa ez beste pentsioren bat jasotzea (% 19.9). Bestalde, pertsona ez-aktiboen % 40 baino gutxiago dira gizonak, eta 10etik 7 erretiroa edo aurre-erretiroa hartu dutelako daude egoera horretan. Alde horretatik, azpimarratu behar da **gizon ez-aktiboen % 4,3 soilik daudela egoera horretan etxeko lanetan**

2.2. UGALTZE-LANA

2.2.1 SEME-ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIAK ETA MURRIZKETAK

Conciliación




2012ko datuek adierazten dute gizonen % 3,1ek soilik eskatu dituela diru-laguntzak eszedentziagatik seme-alabak zaintzeko; 2009an, % 3 izan ziren. Gizonek lanaldia murrizteko egindako eskaerak % 7,7 baino ez dira; 2009an, berriz, % 6,28 izan ziren.

Bateragarritasunera bideratutako neurrien erabilera feminizatuta dagoela argi ikusten da eta esan gabe doa ez direla eraginkorrak izan lana sexuaren arabera banatzen duen gizarte-eredua aldatzeko. Neurri horien feminizazioaren oinarria, azken batean, ordena sozioekonomiko patriarkala da, non, alde batetik, ugaltze-lana emakumeengan uztea sustatzen den eta, bestetik, prestasuna eta presentzia lehenesten dituen produkzio-ereduari eusten zaion. Horren guztiaren ondorioz familia eta lana bateragarri egiteko neurrien fenomeno quiztoa sortzen ari da.

2.2.2 ETXEKO EKOIZPENA ETA BPGarekiko ERLAZIOA

producción doméstica

■ mujeres ■ hombres




Euskadiko etxeko ekoizpenaren balioa 19.296 milioi eurokoa izan zen 2008an, eta horrek esan nahi du urte horretako Barne Produktu Gordinaren (BPGd) % 28,40 izan zela. Azpimarratzekoa da etxeko ekoizpenak BPGd-an duen partaidetzaren ehunekoa gero eta txikiagoa dela, % 47,5ekoa izan baitzen 1993an, eta % 28,40koa 2008an.

Euskadin, etxeko produkzio zenbatu gabea BPGd-aren % 28,7 da. Emakumeek produkzio horren % 72 inguru garatzen dute, eta gizonek, % 28. Azken urteotako bilakaerak erakutsi digu genero-aldea, oraindik oso handia izan arren, % 15 murriztu dela gutxi gorabehera. Baina etxeko lan gehienak batez ere emakumeek egiten dituzte, eta zeregin horietako batzuk feminizatuta daude, arropari eta garbiketari lotutako zereginak, adibidez. Mantentze-lan guztiak gizonek egiten dituzte.

Iturria: EUSTAT


2.3. POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKETA

2.3.1 POBREZIA INDIBIDUALAREN BANAKETA ETA ARRISKUA

Pobrezia-arriskua (bakarrik bizi ahal izateko diru-sarrera nahikorik gabe) dauden pertsonen % 75,5 emakumezkoak dira.

Pobrezia-arriskua nabarmenagoa da pertsona nagusia emakumezkoa den kasuetan, hau da, beharizan oinarritzkoenei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez dituzten etxetean. Etxekoan unitateko kide nagusia emakumea den kasuetan, % 28,1 ongizate-gabeziaren arriskuan daude, hau da, ongizatearen gutxieneko mailari eusteko ezinbestekoak diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikoak ez dituzten etxekoan unitateak dira; aldiz, kide nagusia gizona baldin bada, % 12 daude egoera horretan.

Mantentze-pobreziaren arriskuak (premia oinarritzkoenei aurre egiteko behar adina diru-sarrera nahikorik ez izatea) eragin handiagoa izaten du kide nagusia emakumezkoa den etxeko unitateetan. Kide nagusia emakumea duten etxekoan unitateekin loturiko pertsonen % 12,6 egoera horretan daude; aldiz, erreferentziako pertsona gizonetzkoa dutenen kasuan, % 5,8 dira. Kolokatasun orokorrari dagokionez, kide nagusia emakumea duten etxekoan unitateetako pertsonen % 31,8 ongizaterik ezaren arriskuan dago eta kide nagusia gizona dutenen kasuan, % 16,8 dago egoera horretan.




Mantentze-pobreziak okerrera egin dezake, eta metaketa-pobrezia sortu; hau da, epe luzean bizi-maila duina izateko behar diren ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko ezintasuna eta, orokorki, aurrezkirik, instalaziorik eta ekipamendurik ez izatea. Gizarte batean, hori da pobreziarik kezagarriena, muturreko kolokatasun-egoera adierazten duelako, eta oso motel aldatzen delako. Hemen ere emakumeen tasa gizonena baino handiagoa da, ia halako hiru.

Metatze-pobrezia duten familia gehienak bikoteak eta seme-alabek osatzen dituzte (% 42,9), baina bigarren lekuan daude, % 31,3ko ehunekoarekin, guraso bakarra emakumea duten familiak; hala ere, biztanleriaren % 9,5 baino ez dute osatzen.

3. GIZARTE-BALIABIDEETARAKO SARBIDEA ETA KONTROLA

3.1. HEZKUNTZA-BALIABIDEAK

3.1.1. UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASKUNTZAKO IKASLEAK



Hezkuntza, hein handi batean, gizarte-estatusa baldintzatzen duen baliabidea da; izan ere, eragina du lanbidean, eta, beraz, bai eta diru-sarreretan eta denboraren banaketan ere. Lehen etapan, derrigorrezko hezkuntzan, ikasgeletan mutilek eta neskek duten presentzia ez dago generoen arabera rola baldintzatuta. 2010/2011 ikasturtean mutikoen eta nesken proportzioa antzekoa izan zen, parekotasuneko. Aldea errendimendu akademikoan sumatzen da; izan ere, neskek mutilek baino emaitza hobek lortzen dituzte, oro har. Ikasle errepikatzaileen artean gizonen proportzioa handiagoa da emakumeena

3.1.2. DERRIGORREZKOAREN ONDOKO HEZKUNTZA




Hala ere, **bigarren etapan, nesken eta mutilen arteko bereizketa-prozesua hasten da**, eta, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako espezialitateak aukeratzean, areagotu egiten da bereizketa hori. Erdi-mailako Lanbide Heziketan emakumeak % 38,4 baino gutxiago dira, eta % 40,6 goi-mailakoan. Generoen arabera rola eragina oso handia da adarrak aukeratzekoan.

Erdi-mailako prestakuntzan honako hauek dira adar feminizatuak (gizonak % 20 baino gutxiago dira); **irudi pertsonala, osasuna, zerbitzu soziokulturalak, eta ehungintza, jantzigintza eta larrugintza**. Erdi-mailako LHko ikasleen % **26,45** adar horietan matrikulatuta dago.

3.1.4. UNIBERTSITATE AURREKO ETA UNIBERTSITATEKO IKASKETAK


Alumnado matriculado en pruebas de acceso




Unibertsitate aurreko zein unibertsitateko ikasketetan ere agerian jartzen da ikasleen generoaren araberako espezializazioa. Batxilergoko hautuak baldintzatzen du, printzipioz, unibertsitate-ikasketen aukera. Zientzia eta teknologian soilik betetzen da parekotasun-printzipioa. Izan ere, Arte plastikoak, Irudia eta Diseinua, eta Humanitateak eta Gizarte Zientziak ikasketetan, ikasleen %25-35 gizonetakoak dira.

Hori horrela izanik, feminizazio nagusiak honako gradu hauetan gertatzen dira: Ingeles ikasketak, Hizkuntza modernoak eta kudeaketa, Biologia, Zuzendaritzako laguntza, Haur Hezkuntza eta Gizarte Lana; 10 ikaslelik 2 baino gutxiago dira, horietan guztietan, gizonak. Arkitekturan eta Ingeniaritzan, emakumezko ikasleen proportzioa % 25ekoa da, eta titulazio batzuetan parekotasunetik hurbil egon arren, 18 titulazioetatik 9tan maskulinizazioa erabatekoa da, 2 emakume baino gutxiago baitago 10 ikasleko. Diplomaturak dira unibertsitate-ikasketa feminizatuenak. 2011/2012 ikasturtean diplomatura ikasten ari zirenen artean, emakumeak % 70,9 ziren. Ingeniaritza teknikoan guztiz alderantzizkoa gertatzen da, 2011/2012 ikasturtean matrikulatutako ikasleen % 71,2 gizonak ziren.

Alumando matriculado




3.2.1 OSASUN ARAZOAK DITUEN BIZTANLERIA




Osasuna funtsezkoa da biztanleentzat. Azken 20 urteetan, osasun-arazoak zituzten pertsonen ehunekoak behera egin du, bai emakumeen artean, bai gizonen artean. Esate baterako, 1989. urtean emakumeen % 10ek eta gizonen % 7,8k osasun-arazoren bat zuten, eta 2009. urtean, berriz, bi puntu gutxiago dira osasun-arazoak dituzten emakumeak, eta puntu bat gutxiago, osasun-arazoak dituzten gizonak.

Mendekotasun funtzionala du hamar pertsonatik seik 65 urtetik gorako pertsonen artean, dela bere burua zaintzeko, dela etxeko lanak egiteko, dela mugitzeko. Mendekotasun funtzional handiagoa dute 65 urtetik gorako emakumeek gizonak baino. Mendekotasun funtzionalak emakumeengan duen eragin handiago hori erlatiboa eta absolutua da, eta kontuan hartu behar da emakumeak gehiago bizi direla; horrenbestez, tarte honetan, askoz handiagoa da 65 urtetik

3.2.2 KONTSULTETARA JOATEA ETA OSPITALERATZEAK



Estancia media hospitalización en días




Emakumeak osasun-zerbitzuen erabiltzaile handiagoak izan ohi dira. Emakumeek batez ere osasun-zentroak edo anbulatorioak erabiltzen dituzte; gizonak, aldiz, ospitaleak gehiago erabiltzen dituzte, eta egun gehiago egoten dira horietan. Esaterako, 2009. urtean, emakumeen % 78,8 joan da azken urtean kontsulta medikoren bat egitera, eta ehuneko 5 gutxiago dira hori egin duten gizonak. 2009ko adierazleak erakusten dute, oro har, emakumeak denbora gutxiago egoten direla, batez beste, gizonak baino (6,72 egun eta 7,48 egun hurrenez

3.2.3. DROGA-MENDEKOTASUNA


Drogen kontsumoa pertsonaren osasunari gehien eragiten dion elementuetako bat da. 2010eko datuen arabera, kanabisaren kontsumoa ohikoagoa da gizonen artean emakumeen artean baino. Probatzeko kontsumoa, bizitzan zehar

Evolución del porcentaje de consumo de cannabis



3.2.4 SEDENTARISMOA

Tiempo medio por participante




Sedentarismoak pertsonen osasunari eragiten dio. Emakume sedentarioen ehunekoa gizon sedentarioen ehunekoa baino 8 puntu handiagoa da. 2008. urtean, txangoak eta paseoak egiten dituzten gizonen egunean 28 minutu gehiago eman zituzten batez beste horretan emakumeek baino. Datuak ez dira aldatu 1993tik. 2008. urtean, gizon kirolariek kirolean ematen zuten denbora ordu bete eta 40 minutukoa zen, emakumeek ematen zutena baino 20 minutu gehiago.


Iturria: ZIFRAK 2011

3.2.5 HBE - HAURDUNALDIAREN BORONDATEZKO ETENDURAK

Tasa de IVE



IVES por grupos de edad




Estatistikek agerian jarri dute borondatez etendako haurdunaldiak gora egin dutela pixkana, 1995. urtetik. Alde horretatik, EAEn borondatez etendako haurdunaldien tasak gora egin du azken urteetan: 2,6 zen 1995ean, eta 9,90, berriz, 2011n. Dena dela, autonomia-erkidegoen artean, haurdunaldiaren borondatezko etenduren tasa txikienak dituzten erkidegoetako bat da EAE, 10,03 puntuko tasa du eta. Adin-taldean arabera, adierazlerik altuena (12,64) 20 urtetik 24ra bitarteko emakumeei dagokie. 2011. urtean, haurdunaldiaren borondatezko etendura egiteko emandako arrazoi nagusia (kasuen % 92,3) haurdun zegoenaren osasun fisikoa edo

3.3 KULTURA- ETA KIROL-BALIABIDEAK


3.3.1 KIROLA EGITEA

Modalidad deportiva practicada



Emakumeek kirola egiteko duten arrazoi nagusiak hauek dira: lirain egoteko (emakumeen % 36) eta ongi pasatzeko (% 26). Gizonen artean, arrazoi nagusia ongi pasatzeko da (% 50), eta lirain egotea bigarren lekuan dago (% 17). Emakumeen artean, hauek dira kirol mota nagusiak: gimnasia, aeróbic, fitness eta yogak osatutako multzoa, eta ondoren, ibiltzea. Gizonen artean, gehien egiten den kirola futbola da, eta haren atzetik, ibiltzea.

Personas federadas por modalidad (> de 3000 personas)



Euskadin kirolean federatutako pertsonen % 10 soilik dira emakumeak. au kirolean soilik dago parekotasuna: hockeyan, neguko kirolean, hipikan eta boleibolean. Kirol bat oso feminizatua dago, gimnasia, eta gainerakoak, berriz, maskulinizatuak. 4 kirolean, emakumeen federazio-fitxak ez dira iristen % 10era ere. Horien artean, hauek nabarmentzekoak dira, komunikabideetan duten oihartzuna dela eta: txirrindularitza (261 emakume federatu eta 6.935 gizon federatu) eta euskal pilota (151 emakume federatu eta 2.557 gizon federatu).





4. PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA ERAGINA

4.1 PARTE-HARTZEA ERAKUNDEETAN


4.2 PARTE-HARTZEA BESTE ORGANO BATZUETAN

4.1 PARTE-HARTZEA ERAKUNDEETAN


4.1.1 EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSAERA



Eusko Legebiltzarrean emakumeen presentzia % 44 da egungo legealdian; aurreko legealdian % 45,33 zen eta VIII.ean, aldiz, % 53,3. PSE_EE, Popularrak eta EH Bildu taldeek soilik betetzen dute parekotasun-printzipioa eta azken talde hori da gizon baino emakume gehiago dituen legebiltzarreko talde bakarra. Aipatu behar da UPD alderdiak ez duela emakumezko ordezkariarik legebiltzarrean. Legebiltzarrean ordezkari gehien dituen alderdiak, EAJ-PNV alderdiak, ez du ordezkariitza orekatua emakumeen eta gizonen artean. Aipagarria da, era berean, Eusko Legebiltzarreko burua emakumezkoa dela, aurreko bi legegintzaldietan bezala.

4.1.2.- BATZAR NAGUSIEN OSAERA

Gizonen eta emakumeen parekotasun printzipioa hiru foru-erakundeetan betetzen den arren, emakumezko batzarkideen kopurua batean ere ez da gizonezko batzarkideen kopurua baino handiagoa. Gipuzkoako eta Bizkaiko Batzar Nagusietan emakumezko bana da buru, baina ez Arabakoetan. Erakunde horietako botere betearazlea gizonen esku dago oraindik, hiru ahaldunak gizonak baitira.

4.1.3 EAEko UDALAK

Mugetatik hurbil egon arren, EAEko udaletako zinegotzigoen osaerak parekotasun printzipioa betetzen du. Alkatetzekin ez da gauza bera gertatzen, desoreka handia baitago gizonen alde, alkateen % 77,06 gizonezkoak baitira.

Azken hauteskundeetan, zerrenda guztien osaerak parekotasun zuzena zuen, ordezkaritza % 40. Hala ere, emakume gehienak leku zailtan zeuden, "leku ziurrak" izenekoetatik urrun.

Emakumezko alkatea duten udalerrri gehienak txikiak dira. EAEn 56 emakumezko alkate daude, eta haietako 31 alkate 2.500 biztanle baino gutxiagoko udaletan dabilta. EAEko hiriburuetakoa bakar batek ere ez du izan emakumezko alkaterik, ez eta 2011ko azken hauteskundeetan ondoren ere. Eustat-en erroldaren arabera handienak diren 10 udalerrietan ez dago emakumezko alkaterik. Alkate horien alderdi politikoei dagokienez, aipatzekoa da Euskadiko Alderdi Sozialistak (PSE) eta Alderdi Popularrak (PP) ez dutela emakumezko alkaterik EAEn. Aldiz, emakumezko alkateen % 65,5 (35 guztira) Bildukoak dira, eta EAJK 16 emakumezko alkate ditu (guztizko kopuruaren % 28,57).

Emakumezko gainerako alkateak, 5 guztira, talde independenteetakoak dira.

**4.1.4 EUSKO JAURLARITZAKO GOI-KARGUDUNAK**

	Sailak		Sailburuordetzak/ Idazk. Nag.		Zuzendariak/ Idazk. Nag.		Behin-behineko langileak	
	E	G	E	G	E	G	E	G
Lehendakaritza		1	2	2	8	10	7	3
Herri Administrazio eta Justizia Sails		1	1	3	4	8	3	3
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	1		2	2	5	8	2	4
Enplegua eta Gizarte Politikak		1	1	2	3	6	1	4
Ogasun eta Finantza Sails		1		3	4	6	1	4
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sails	1		3	2	10	13	3	3
Segurtasuna	1		1	2	4	6	4	1
Osasuna		1		1	5	2	2	1
Ingurumen eta Lurralde Politika Sails	1		1	2	4	2	1	4
Zenbateko Osoa	4	5	11	19	43	62	19	26
%	44,44%	55,55 %	36,63%	63,33%	40,95 %	59,04%	42,22%	57,77%

4 emakumezko sailburuk, 4 gizonetzko sailburuk eta lehendakariak osatzen dute Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritzako goi-karguetan, egun, partaidetza orekatua da maila guztietan, sailburuordetzetan izan ezik, printzipio hori betetzen ez baitute: 19 gizonetzko sailburuorde (% 63,33) eta 11 emakumezko sailburuorde.

Sailetan, nabarmentzekoa da Ogasun eta Finantza Sails, bai sailburua bai sailburuorde guztiak gizonak baitira; bai eta Justizia eta Herri Administrazio Sails ere, sailburua eta sailburuordeen %75 gizonak baitira.

Maila horietan, sail bakar batean da handiagoa emakumeen kopurua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailean, sailburua emakumea baita, eta emakumezko sailburuordeak guztien % 60.

Zuzendaritzetan, berdintasun-printzipioa bete egiten da, baina gizonetzko zuzendariak emakumezkoak baino gehiago dira: % 59,04 eta % 40,95, hurrenez hurren.

Sail bakar batean daukate emakumeek gainordezkaritza zuzendaritzetan, Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean, emakumezko zuzendariak guztien % 70 baitira.

Berdintasun-printzipioa sail hauetan ez da betetzen: Herri Administrazioa eta Justizia; Ekonomikaren Garapena eta Lehiakortasuna; Enplegua eta Gizarte Gaiak; eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura.

Aipamen berezia merezi dute behin-behineko langile hauek: sailetako idazkariak eta aholkulariak.



Orokorrean ordezkariak orekatuaren printzipioa betetzen bada ere, zorrotzago aztertuta ikusten da sailburuen idazkaritzak oso feminizatuta daudela, baina aholkularitzak oso maskulinizatuta.

Sail batzuetan, aholkulari guzti-guztiak gizonetzkoak dira; besteak beste, sail hauetan: Ogasuna eta Finantza; Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna; Enplegua eta Gizarte Gaiak; eta Ingurumena eta Lurralde Politika.



Oro har, ondoriozta daiteke historikoki maskulinizatutako sektoreetan (besteak beste, Ogasuna eta Finantza, eta Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna) ezaugarri hori Eusko Jaurlaritzako goi-karguetan ere agertzen dela, gizon asko dituztelako.

Gauza bera gertatzen da feminizatutakoekin (Hezkuntza eta Osasun sailak, adibidez), emakume gehiago dituztelako nizon hain.

4.2 PARTE-HARTZEA BESTE ORGANO BATZUETAN

4.2.1 IBEX-EKO ENPRESETAKO ETA FINANTZA-ERAKUNDEETAKO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK**Consejos de administración/dirección
general entidades financieras CAE****presidencia Entidades
financieras**


EAEko bost finantza-erakunde guztiek gizonetzko bat dute buru, eta erabakigune garrantzitsuetan, bost kideetatik bakarra baino ez da emakumea. Emakumeen ordezkaritza handiena duen horretan ere, emakumeak ez dira % 31 baino gehiago goren mailako organo erabakitzailean. IBEX 35aren EAEko enpresetan oso antzekoa da egoera.

**consejo de administración/dirección
general IBEX****presidencia empresas IBEX**

Burtsan kotizatzen duten hiru enpresetatik batean ere ez dago emakumezko presidenterik, eta horien administrazio-kontseiluetan eta zuzendaritza nagusietan emakumeen ehunekoa % 20,6 da, batez beste.


4.2.2.- BESTE BATZUK**comités ejecutivos de sindicatos**

Euskadiko sindikatu nagusien artean bakarrak du emakumezkoa idazkari nagusi; sindikatu horren batzorde eragileetan gizonak baino emakume gehiago dago. Gainerako sindikatuetak idazkari nagusia gizona da, eta batzorde eragileetako emakumeen tasa ez da % 37ra heltzen.

**Cargos de dirección en medios de
comunicación**

Emakumeek komunikabideetan duten erabakitze boterea aztertuta, hedabideen mundua oso maskulinizatuta dagoela ikus daiteke. Soilik irrati batean dago emakumezko zuzendaria. Aztertutako telebista-kate guztietan gizonetzkoa da buru, eta salbuespen bakarra izendatu berri duten EITBko emakumezko zuzendaria da. Egunkari bakarra dugu emakume bat zuzendari duena, ikertutako artean tirada txikiena duena, hain zuzen ere.

Organo judizialean, kontuan hartu diren karguetan, bostetik hirutan emakumeak daude. Hala ere, karrera judizialean gora egin ahala, emakumeen presentzia txikiagoa da. Epaitegietan, epaile diren emakumeen kopurua gizonena halako bi baino gehiago da. Probintzia-auzitegietan, emakumezko magistratuen kopurua gizonetzkoen kopuruen ingurukoa da, presidentziak barne. Eta




Guztira 108 elkargo daude, eta % 14,81etan bakarrik dira emakumezkoak burua. Bizkaia nabarmendu behar da, guztizko kopuruaren % 10,41 baino ez baitira emakumezkoak.

Aipatutako gidan aztertutako 19 enpresa-elkarteetatik 16tan (% 84,21) gizonezkoak dira buruak, eta 3tan bakarrik dira emakumezkoak elkarte horietako buru EAE guztian.



Gainera, merkataritza-ganberak, Bilboko Burtza eta azokak ere aztertu dira, eta horietan guztietan (10) gizonezkoak dira buruak.

Emakumeek ez dute batere presentziarik esparru honetan.



Kirol-arloko organoetan dauden gizonen ehunekoa (% 80) emakumeena (% 20) baino nabarmen handiagoa da.

4 organo edo batzordeetan gizonak dira nagusi eta, gainera, horietako batean (Kirolaren Euskal Kontseiluan) ez dira betetzen legez ezarritako ordezkari-tza orekatuaren ehunekoa; aitzitik, beste bitan ehunekoa parekotasunerako joera dute. EAEko kirol-federazioetako presidenteen % 96 gizonezkoak dira.




Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitate-sistema osatzen duten hiru unibertsitateetan (Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea eta Euskal Herriko Unibertsitatea) gizonezkoak dira zuzendariak. makumeek zuzendaritza-kontseiluetan duten ordezkari-tza paritarioa da Deustuko Unibertsitatean, heren bat Euskal Herriko Unibertsitatean, eta % 33 Mondragon Unibertsitatean.

5. GIZARTE-ANTOLAKUNTZA ERANTZUKIDEA

5.1. DENBORAREN ERABILERA

Tiempo medio social de actividades, (en horas/min)




Biztanleek bizitza soziala egiteko batez beste ematen duten denbora asko murriztu da azken 15 urteotan. Halaber, horri lotutako genero-hesia ere murriztu da: 12 minututik 5 minutura. Hala ere, komeni da azaltzea emakumeek, batez beste, gizonek baino 10 minutu gutxiago dituztela egunean harrerak eta irteerak egiteko. Gizonek, batez beste, emakumeek baino denbora sozial luzeagoa dute aisia aktiboari lotutako jarduera guztiak egiteko. Eta aisia pasiboa aztertzean, ikusten dugu gizonek, batez beste, emakumeek baino 20 minutu gehiago ematen dituztela irakurtzen, irratia entzuten eta telebista ikusten.

Emakumeek eta gizonek espazioa nola erabiltzen duten aztertuta, datu hauek ateratzen zaizkigu: emakumeek batez beste gizonek baino bi ordu gehiago igarotzen dituzte etxean, eta gizonek, gutxi gorabehera, ordubete gehiago ikastokian edo lantokian. Gizonek, gainera, etxetik kanpo eta establezimenduetan ordu erdi gehiago ematen dute, gutxi gorabehera.

Emakumeek, batez beste, gizonek baino bi ordu baino gehiago ematen dituzte etxeko lanak egiten; gizonek, aldiz, emakumeek baino ordubete inguru gehiago ematen dute lan produktiboan eta prestakuntzan, eta aisialdi gehiago dute, egunean ordubete gehiago. Horrenbestez, emakumeen eta gizonen denbora ez da berdin banatzen. Gaur egun, lan-jarduerari lotuta dagoen genero-hesi handiena lan nagusian gertatzen da: gizonek emakumeek baino ordubete eta 15 minutu gehiago ematen dute zeregin horretan.

Denboraren erabilera dagoen desberdintasun hori esanguratsua da, aipatutako lanak oihartzun sozial handiagoa duelako, eta gainera, eskubide sozialak

Tiempo medio social destinado a trabajo doméstico




Esanguratsua da eguneroko jardueretan genero bien arteko aldea: otorduak prestatzean (56 minutu), garbiketa lanetan (39 minutu) eta arropa kontuetan (20 minutu) Esan beharra dago gestioetan ematen dutela gizonek emakumeek baino denbora gehiago (minutu bat gehiago), hots, eguneroko denbora tarterik txikienaren jabe den arloan, oso noizbehinka gertatzen den jardueran.

Emakumeek denbora gutxiago ematen dute zeregin horietan, baina ez bakarrik gizonak lan horiek egiten hasi direlako, gizarte-ohituren aldaketak eta aldaketa teknologikoez ere lagundu dute horretan.


Oro har, emakume landunek egoera berean dauden gizonek baino ordu kopuru bikoitza ematen dute etxeko zeregin horietan Ugalketa-lan guztiak aintzat hartuta, emakumeek egunean denbora gehiago ematen dute seme-alaba adingabeak zaintzen: egunean 4,7 ordu ematen dituzte, eta gizonek, 2,8 ordu.

5.2. ZAINTZARAKO ZERBITZUAK



Azken 15 urteetan, emakumeek ez dute seme-alabak zaintzeko denbora gutxitu; aitzitik, 8 minutu gehiago eman dituzte zeregin horretan (gizonek 7 minutu). Eta gauza bera gertatzen da helduen zaintzarekin, 1993. urtean baino 4 minutu gehiago ematen dutelako zaintza-lan horietan (gizonek 2 minutu gehiago).

6. INDARKERIA



2012. urtean, genero-indarkeriaren ondoriozko 4.997 biktimizazio izan ziren: 2011n baino 139 eta 2010ean baino 712 gehiago.

Biktimizazio gehienetan bikotekideak edo bikotekide ohiak eragiten du indarkeria.

2011. urtean, emakumeek aitortutakoari begira, esan behar da 2011n emakumeen % 12,5ek aitortzen duela egoera horietako bat gutxienez pairatu duela, eta % 2k ziola indarkeria mota hori inkesta garaian sufritzen ari zela. Emakumeen % 7,5ek aitortu du behin gutxienez bikotekide edo bikotekide ohiaren indarkeria pairatu zuela, eta % 1ek egun egoera hori bizi zuela aitortu du. Emakumeen % 1,8k azaldu du noizbait indarkeria matxista bizi izan duela bere lanean; eta % 0,2k aitortu du galdetzen ari zitzaion une horretan jasaten ari zela indarkeria mota hori.


Bestalde, 2011n EAEn emakumeen % 18k esan du indarkeria ondorioztatu edo tekniko gisa planteatutako egoeretako bat bizi izan duela, maiztasunez edota noizbehinka, azken urtean; ildo beretik, 10etik 3k, noizbait pairatu duela esan du.

Horrela, esparru bakoitzeko analisi espezifikoaren arabera, indarkeria ondorioztatuaren edo teknikoaren ehunekoa aitortutako indarkeriaren ehunekoa baino handiagoa da.

Izan ere, emaitzen arabera, bost emakumetik batek inoiz indarkeria jasan du, lan-eremuan.

Bestalde, ondoriozta daiteke epealdi horretan emakumeen % 8,5ek pairatu duela noizbait bikotekidearen edo bikotekide ohiaren indarkeria, eta familia barneko genero-indarkeria, berriz, % 6,1ek.

Lanean dauden emakumeen % 7k azken urtean maiz jasan du indarkeria, lan-eremuan; eta % 20k esan du gutxienez behin izan duela.



Biktima gehienak 31 urtetik 40 urtera bitarteko emakumeak dira. Salaketa egitean, 18 eta 30 urte bitarteko adin-taldeko emakume kopurua % 28,6 da. Eta ehuneko hori txikituz doa adinez nagusiagoak direnen artean eta 18 urtetik beherakoan artean. Erasotzaileei dagokienez, ehuneko handieneko adin-tartea 31 urtetik 40ra bitartekoa da (% 32,1). Bi tarte horien barruan daude erasotzaileen % 56,4. Biktimen kasuan bezala, erasotzaileak 18 urtetik 40ra arteko tartean daude.



Emakumeen Aurkako Indarkeriaren ondorioz, 2004 eta 2013 artean, Euskadin 32 emakume hil zituzten genero-indarkeriagatik; biktimek 45 urte zituzten, batez beste. 2004an hil zituzten emakume gehien (lau emakume), baita 2008., 2006. eta 2005. urteetan ere (hiru emakume). Hildako emakumeen % 76k nazionalitate espainiarra zuen; % 65 erasotzailearekin bizi zen; eta emakumeen % 76 bikotekideak edo bikotekide ohiak hil zuen. Euskadin, hildako emakumeen tasa 2,2 izan da 202. urtean (Estatuan, berriz, 2,5).



3.- EUSKAL ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN SEXUAREN ARABERAKO ORDEZKARITZARI BURUZKO AZTERKETA ETA BERDINTASUNERAKO PRESTAKUNTZA

Txosten hau egitean Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen osaera aztertu behar izan da, erakundean berdintasuna norainokoa den eta erantzukizunak eta erabakiak hartzeko maila ezberdinetan arduraduna nor den jakitearren. Gauzak horrela, EAEko Administrazio Orokorreko funtzionarioen eta lan-kontratupeko langileen sexuaren arabera banaketa aztertu da kapitulu honetan.

Azterketa honek, bestalde, aukera ematen du genero-eraginari buruzko txostenaren egiturari beharrezkoa den edukietako bat betetzeko, hau da: emakume eta gizonen partaidetza araua egiteko prozesuan. Horri dagokionez aipatu behar da atal honetan aipatutako taldeak alde batera utzita, ez dela ikusi arau hau egiten parte hartu duen beste talderik.

Aztertu diren taldeak:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere organismo autonomoetako langileen banaketa, sexuaren arabera.

- Unibertsitateaz kanpoko irakasleen banaketa, sexuaren arabera
- Osasun-erakundeetako langileen banaketa, sexuaren arabera
- Segurtasun-kidegoen banaketa, sexuaren arabera Ertzaintza
- JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA



1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOETAKO LANGILEEN ETA GOI-KARGUDUNEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

1.2 Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

FUNTZIONARIOAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011

	A1		A2		C1		C2		E		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Karrerako funtzionarioak	510	410	192	180	217	337	263	1144	308	145	1490	2216
Bitarteko funtzionarioak	299	560	68	82	96	237	70	295	77	75	610	1249
GUZTIZKOA	809	970	260	262	313	574	333	1439	385	220	2100	3465

LAN-KONTRATUPEKO LANGILEAK. Administrazio orokorreko kontseilaritza, sail eta organismo autonomoetako langileak. 2011

	Goi-mailako tituluduna		Erdi-mailako tituluduna		Bestelako tituludunak		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	115	121	45	63	221	236	381	420
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	43	146	14	42	120	169	177	357
Behin-behinekoak	5	11	0	1	3	7	8	19
GUZTIZKOA	163	278	59	106	344	412	566	796

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

Ehunekoei dagokienez, Euskadiko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileen % 61,52 emakumeak dira eta % 38,48 gizonak; horrek esan nahi du administrazioa gero eta feminizatuago dagoela.

Administrazioko goi-mailetan (A1 eta A2) emakume baino gizon gehiagok lan egiten du, baina azken urteotan alde hori murriztu egin da. Bestalde, orokorrean emakumeen lan-arloko ezegonkortasuna administrazioan gizonena baino nabarmen handiagoa dela: lan-arloko ezegonkortasuna duten administrazioko langileen (bitarteko funtzionarioak, eta aldi baterako eta behin-behineko kontratupekoak) ia % 70 emakumezkoak dira. Nabarmenezkoa da C2 taldean gero eta emakume gehiago daudela, emakumeen gehiegizko ordezkartza % 81,20ra iristen baita.



2- UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IRAKASLEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

2.1 Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera. haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, helduen hezkuntza, hezkuntza berezia

Irakasleak, taldearen eta sexuaren arabera.					
Ematen dituzten mailak	Emakumeak		Gizonak		GUZTIZKOA
	Abs.	%	Abs.	%	
GUZTIZKOA	26.617	72,89	9.899	27,11	36.516
Haur hezkuntza - lehen hezkuntza	15.717	85,50	2.666	14,50	18.383
Bigarren hezkuntza	9.356	59,14	6.463	40,86	15.819
Helduen hezkuntza	505	69,85	218	30,15	723
Irakaslanik gabea	1.039	65,30	512	34,70	1.591

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. 2011-2012.

Esan behar da unibertsitateaz kanpoko irakaskuntza oso feminizatuta dagoela, batez ere lehen hezkuntzan eta bigarren hezkuntzan. Batez ere emakumezkoak dira alor honetan lanean dabiltzanak, irakaskuntza pribatuan zein irakaskuntza publikoan. Guztira 36.516 pertsona dabilta irakasle lanetan unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, eta % 72,89 emakumezkoak dira. Emakumeen presentzia bereziki nabarmena da irakaskuntza-mota bitan, hau da, haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan batetik, eta hezkuntza berezian bestetik.

Gauzak horrela, aipatzekoa da haur-hezkuntza eta lehen hezkuntzaren eremua: bertako irakasleen % 14,50 baino ez dira gizonetzkoak eta, ondorioz, ikasleek ia ez dute erreferentzia maskulinorik irakaskuntzaren maila horretan.

Lanbide-heziketari dagokionez, irakasle gehienak gizonetzkoak izateak eragina du bai ikasleengan baita irakasleengan ere. Unibertsitate aurreko irakaskuntza osoan honetan bakarrik da gizonen presentzia emakumeena baino handiagoa, ehuneko oso adierazgarriekin, joera alderantzizkatzen dela.

Erabaki-guneetarako sarbideari dagokionez, emakumeen presentzia oso handia denez sektorean, errazagoa da emakumeak ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetan egotea, eta datuek diote banaketa orekatua dela. Hezkuntza Sailak hurrengo lau urteetarako ikastetxeetako zuzendaritza-lanpostuetarako egin dituen izendapenei buruzko azken datuen arabera (2009ko

uztailekoak), 2009an egin ziren 174 izendapenetatik 83 (% 47,7) emakumezkoak dira eta 91 (% 52,3) gizonezkoak.

3- OSASUN-ERAKUNDEETAKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA.

3.1 Osasun-erakundeetako osasun-langileak, taldearen eta sexuaren arabera.

Osasun-erakundeetako funtzionarioak eta estatutupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011

	A1		A2		C1		C2		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa	2.208	2.272	519	5.350	67	642	111	2.730	2.805	8.994
Estatutupeko aldi baterako langilea	310	569	69	946	9	78	11	338	399	1.931
GUZTIZKOA	2.518	2.841	588	6.296	76	720	122	3.068	3.204	10.925

Osasun-erakundeetako lan-kontratupeko langileak, taldearen eta sexuaren arabera. 2011

	Goi- mailako titulazioa		Goi- mailako titulazioa		Bestelako titulazioak		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	200	93	60	816	70	658	330	1567
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	1	2	0	4	0	4	1	10
GUZTIZKOA	201	95	60	820	70	661	331	1577

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

EAEko osasun-langileen sexuaren araberako banaketa ez dago orekatuta, langileen % 77,86 emakumezkoak baitira. Emakumeen gehiegizko ordezkartza maila guztietan gertatzen da, A1 mailari dagokion kolektiboan izan ezik; izan ere, maila horretan parekotasun-printzipioa betetzen da. Emakumeek gehiegizko ordezkartza daukate, neurri handi batean, A2 taldeko partaidetza ez delako orekatua. A2 taldean erizaintzan diplomatutako langileak daude batez ere, eta lan-merkatu horretako langile gehienak emakumezkoak izatea azaltzen du horrek.



Aipatzekoa da, baita ere C2 maila. Prestakuntza-maila txikiena eskatzen da bertara sartzeko eta, ondorioz, ordainsari-maila txikiena ere badu. Bertako langileen % 96 emakumezkoak dira eta, beraz, argi dago segregazio bertikal izugarria dagoela.

3.2 Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, taldearen eta sexuaren arabera. Kudeaketa eta zerbitzuetao langileak.

Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, funtzionarioak eta estatutupeko langileak. 2011

	A1		A2		C1		C2		E		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Estatutupeko langile finkoa / Karrerako funtzionarioa	126	133	34	84	162	243	455	1464	810	721	1.587	2645
Estatutupeko aldi baterako langilea	45	48	12	18	28	46	64	244	93	282	242	638
GUZTIZKOA	171	181	46	102	190	289	519	1708	903	1.003	1.829	3.283

Osasun-erakundeetako langile ez-sanitarioak, lan-kontratupeko langileak. 2011

	Goi-mailako titulazioa		Goi-mailako titulazioa		Bestelako titulazioak		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	14	12	16	26	244	423	274	461
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak					1	1		2
GUZTIZKOA	14	12	16	27	244	424	274	463

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

Langile ez-sanitarioei dagokienez, generoen arteko desoreka osasun-langileena baino txikiagoa den arren, emakumeen ordezkartza guztizkoaren % 64,22koa da. Gehiegizko

ordezkaritza hori, batez ere, C2 taldeko ordezkariak orekatua ez delako gertatzen da, bertan % 76,70 baitira emakumezkoak.



4 ERTZAINITZA.

4.1 Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera

Segurtasun-kidegoetako langileak, taldearen eta sexuaren arabera										
ESKALAK	A		B		C		D		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E	G	E
Goi-mailako eskala										
Eskala exekutiboa			127	5					127	5
Inspektoreordetza-eskala					395	41			395	41
Oinarrizko eskala							6.552	820	6.552	827
GUZTIZKOA			127	5	395	41	6.552	820	7074	866

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarrila

Ertzaintzan, emakumeek langile-taldearen % 10,90 osatzen dute; 866 emakume daude 7.940 ertzainen artean.

Ehunekoa hain txikia izateak azalpen historikoa du: lehenengo sustapenean emakumeek debekatuta zeukaten Ertzaintzan sartzea, eta hurrengo sustapenetan emakumeen gehienezko kupoa % 15ekoa izango zela ezarri zen. Sustapen horiek jendetsuenak izan ziren, horietan sartu zen langile kopuru handiena, eta gainera emakumeak garai hartan zuen egoera kontuan hartuta, ulergarria da gaur egungo ehunekoa hain txikia izatea.

Emakumeak kategoria eta eskaletan duen banaketa Oinarrizko eskalan (agenteak) pilatzen da, % 11,12koa dela banaketa. Gaur egun, soilik 5 emakume daude eskala exekutiboan, eta horrek esan nahi du emakumeen ordezkariak % 3,9koa dela. 2012. urtean 4 emakume sartu ziren eskala horretan, eta 26 gizon.

5 JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO LANGILEEN BANAKETA, SEXUAREN ARABERA



5.1. Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

FUNTZIONARIOAK	Titularra / jabea		Bitartekoa		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E
Auzitegiko medikua	15	24	6	7	21	31
Prozesu- eta administrazio-kudeaketa	113	597	53	292	166	889
Prozesu- eta administrazio-izapidetzea	134	372	33	174	167	546
Laguntza judiziala	142	163	30	114	172	277
GUZTIZKOA	404	1156	122	587	526	1743

Justizia administrazioko langileak, taldearen eta sexuaren arabera

LAN-ESPARRUAN	Goi-mailako titulazioa		Goi-mailako titulazioa		Bestelako titulazioak		GUZTIZKOA	
	G	E	G	E	G	E	G	E
Lan-kontratupeko langile finkoak	3	6	3	5	14	35	20	46
Aldi baterako lan-kontratupeko langileak	6	16	2	18	9	25	17	59
GUZTIZKOA	9	22	5	23	23	60	37	105

Iturria: Eusko Jaurlaritza, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza. 2013ko urtarila

2013ko urtarrilean, Justizia Administrazioko funtzionarioak eta lan-kontratupekoak kontuan izanik 2411 langile zeuden, eta horietatik % 76,64 emakumeak dira; argi ikusten da justiziako langileen artean emakumeak direla nagusi.

Prozesu- eta administrazio-kudeaketan desoreka handia dago sexuaren arabera ordezkaritzan, % 76,57 emakumeak baitira.



PRESTAKUNTZA.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen arabera, herri administrazioak behartuta daude langileei emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan oinarritzko prestakuntza mailakatu eta iraunkorra emateko neurriak hartzera. Horretarako, prestakuntza-planak egin eta gauzatu behar dituzte beren zerbitzuetako langileentzat eta sentsibilizazio-jarduerak egin behar dituzte erantzukizun politikoa dutenentzat.

Hurrengo taulan, sail bakoitzak berdintasunerako prestakuntzari dagokionez emandako prestakuntza jasotzen da. Datu horiek Eusko Jaurlaritzako sailtako langileen prestakuntzari dagozkio, eta ez dituzte kontuan hartzen justizia-administrazioko edo osasun-erakundeetako erakunde autonomoak, sozietate publikoak, edo beste talde batzuk; besteak beste, haietako irakasleak.

Prestakuntza sailka, 2013	Emakumeak	Gizonak	Zenbatekoa
Lehendakaritza	49	34	5.386,8
Herri Administrazio eta Justizia Saila	8	1	1.825
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	6	2	2506
Enplegua eta Gizarte Politikak	5	4	1596
Ogasun eta Finantza Saila	10		1700
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	10	4	2558
Segurtasuna	1	1	310
Osasuna	3		510
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	12	6	3.316
GUZTIZKOA	104	46	19.707,80

Aipamen berezia merezi du Lehendakaritzak, 2013an prestakuntza-jardunaldi batzuk antolatu baititu oinarritzko berdintasun-alorrean langile guztientzat, goi-kargudunentzat barne. Saileko ia langile guztiek parte hartu dute jardunaldi horietan.

Sexuen araberako parte-hartzeari dagokionez, aurten ere ikusi da gizonek parte-hartze txikiagoa dutela berdintasunerako prestakuntzan. Bi sailtan (Ogasun eta Finantza, eta Osasun) ez da egon 2013an berdintasunean prestatu den gizonik. Eta gainerako sailtan haien ordezkaritza oso-oso txikia izan da, Lehendakaritzan izan ezik, ia langile guztiek parte hartu baitute.



4.- GASTUAREN AZTERKETA. AURREKONTU-PROGRAMEN AZTERKETA.

Atal honetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera, eta/edo diskriminazio-egoera zehatzak indargabetzera, edo berariazko arazoak arintzera bideratutako helburuak dituzten aurrekontu-programa guztien azterketa biltzen da. Halaber, helburu horiek lortzeko egin beharreko ekintzen kostu ekonomikoa laburbiltzen saiatu gara. Horretarako, aurrekontu-memoriak aztertu ditugu, horiek baitira, finean, aurrekontuen dokumentu-oinarria eta, politika publikoak ezartzean, Sail bakoitzaren helburuak dokumentu horietan biltzen baitira. Gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatu eta egon litezkeen desberdintasunak kendu edo murrizteko ekintzak biltzen dituzten programak baino ez ditugu sartu eta, bai eta ekintza horiek lortzeko erabiltzen den aurrekontu-partida ere.

Ez dira egokitzen hartu aztertuak izateko gobernantzari lotuta dauden berdintasunaren aldeko neurriak, berariazko aurrekontu-partidarik ez badute; jarduera horiek neurri handiagoan gauzatzen dituzte berdintasun-esparruko langile teknikoek, eta adierazita daude 2. taldean.

Bestalde, prestakuntzari dagokionez, 3. atalean aztertzen dira administrazioako langileak. Prestakuntza egina eta aurrekontu bidez gauzatua 2013ko ekitaldian.

Oro har, ez dira jaso, berdintasuna sustatzen duten arren, barne-baliabideekin egiten diren jarduerak, hau da, administrazioako edo haren erakunde autonomoetako langileek egiten dituztenak.

4.1 1. TALDEA. Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.



1. TALDEA: Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.			
Saila	Kreditua 2013	Kreditua 2014	Kreditua 2015
Lehendakaritza (Emakunde)	6.073.000 €	5.233.997 €	5.776.000 €
1. TALDEA, GUZTIRA	6.073.000 €	5.233.997 €	5.776.000 €

Emakunderentzako aurrekontua 542.003 euro handitu da, eta aurreko ekitaldikoa baino % 10,35 handiagoa da. Ehuneko hori kontuan hartzekoa da, Lehendakaritzaren aurrekontu osoa % 3,69 handitu baita 2014. urtearen aldean. Emakunderentzako aurrekontua sailaren guztizkoaren % 5,4 da.

Hortaz, badirudi erakundeak sustatu eta koordinatutako berdintasun-politikak mantentzea bermatu ez ezik, haiek ziur aski indartu ere egingo direla. Emakundek, gainera, erakundearen barruan lanpostu berriak eta zerbitzu edo arlo berriak sortzea jasotzen du bere plangintzan.

Daturik ez dago jakiteko programa edo politika zehatzen bat egon ote den sailen batek edo Emakundek transferituta egon eta justifikatzen duena, alde batetik, Emakunderen aurrekontua % 10 handitzea eta, bestetik, sail batzuetan berdintasun-arloko aurrekontua nabarmen murriztea.



4.2 2. TALDEA. Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

2. TALDEA: Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.

Saila	Kreditua 2013	Kreditua 2014	Kreditua 2015
Lehendakaritza	106.320,51	107.140,24	108.285,11
Herri Administrazio eta Justizia Saila	55.000	55.000	55.221,17
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	57.429,38	57.429,38	58.737,94
Enplegua eta Gizarte Politikak	55.188,00	52.979,26	110.915,67
Ogasun eta Finantza Saila	53.396,00	53.396	55.376
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	110.310,42	110.310,42	110.310,42
Segurtasuna			56.032,29
Osasuna	59.000,00	54.000	54.000
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	105.870,73	56.631,68	56.631,68
2. TALDEA, GUZTIRA	602.515,04	546.886,98	665.510,28

Eusko Jaurlaritzako sail guztiek dute pertsona bakarreko berdintasun-unitatea, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak izan ezik, bi berdintasun-teknikari baititu unitate horretan. Gainera, Lehendakaritza Sailak eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak ere berdintasun-unitateak dituzte Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian eta LANBIDE erakunde autonomoan, hurrenez hurren.

Bestalde, ez da unitaterik edo parekorik sortu berdintasun-unitateak arautzen dituen azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuan xedatutako organismo autonomo edo erakunde publikoetan.

Berdintasun-unitate administratiboek 665.510,28 euroko aurrekontua dute, eta kopuru hori berdintasun-teknikariek beren eginkizunak betetzeagatik jasotzen duten soldatari dagokio. Bai Lehendakaritzak bai Osasun Sailak aurten ere unitateari lotutako aurrekontu-partida dute: 5.000 euro kasu bakoitzean. Bi sail horiei Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila eta Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila gehitu behar zaizkie, 2015erako bakoitzak 6.000 euro izendatu baititu. Hala ere, zenbateko horiek 3. taldean jasotzen dira, langileen soldata eta bestelako neurri edo egintza positibo batzuk bereizteko.



4.3 3. TALDEA. Helburu edo ekintzen arteko bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.

3. TALDEA: Helburu edo ekintzen arteko bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.			
Saila	Kreditua 2013	Kreditua 2014	Kreditua 2015
Lehendakaritza	123.636,80	5.000	152.000
Herri Administrazio eta Justizia Saila	1.640.000	1.111.210	1.111.210
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	0	340.000	6.000
Enplegua eta Gizarte Politikak	0	1.568.618	1.381.527
Ogasun eta Finantza Saila	0	0	0
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	33.638,73	369.054,43	460.038,73
Segurtasuna	149,540	74.770	25.000
Osasuna	10.000	15.000	15.000
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	0	423.000	673.000
3. TALDEA, GUZTIRA	1.903.604,23 €	3.906.652 €	3.823.775,73

Talde honetan, guztizko zenbatekoa 3.823.776 € da; hau da, aurreko ekitaldikoa baino 82.876 euro txikiagoa. Era berean, kontuan hartu behar da taula honetan Lehendakaritza eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako bildutako datuetan Lankidetzaren Euskal Agentziaren eta Lanbide-ren aurrekontuak ere sartzen direla. Ogasun eta Finantza Saila da talde honetan aurrekontuan jasotako kopururik ez daukan sail bakarra.

Jadanik lau sailek (Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura; Osasuna; Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasuna; eta Lehendakaritza) dute berdintasun-unitateari lotutako berariazko aurrekontua (Lanbidez eta Lankidetzaren Agentziaz gain), I. kapitulua alde batera utzita.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak aurreko urtean baino 525.418 euro gutxiago bideratzen ditu genero-indarkeriaren biktimei zerbitzuak ematera, eta, horrenbestez, badirudi horrek eragin kaltegarria izango duela indarkeria-esparruan esku hartzen egin beharreko lanean. Sail horretan sortutako bi lanpostuak dira azpimarragarriak; haietako bat berdintasun-teknikaria da, eta bestea aholkulari juridikoa, eta lanaldi osoan jardungo dute indarkeriaren esparruan. Ez dira jaso 2. taldean (I. kapitulukoak izan arren), ez dituztelako betetzen



berdintasun-unitateei esleitutako eginkizunak; bai, ordea, emakumeen aurkako indarkeria-esparru espezifikolari esleituta daudenak.

Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean 400.000 euroko aurrekontu-partida bat dago, Ondarroako lonja-proiektuari dagokiona. Kopuru hori bera zegoen jasota 2014ko eta 2013ko aurrekontuetan, baina ekitaldi horietan ez zela lanik egin egiaztatu da.

Herri Administrazio eta Justizia Sailak 1.111.210 euroko partida bat izendatu du etxe-indarkeriaren eta/edo eraso sexualen esparruko jardueretarako, Legelarien Euskal Kontseiluarekin indarkeriaren biktimenezako laguntza juridikolari eta ofiziozko txandari buruz lortutako hitzarmenaren barruan.

4.4 4. TALDEA. Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.

4. TALDEA: Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.			
Saila	Kreditua 2013	Kreditua 2014	Kreditua 2015
Lehendakaritza	146.778,62	146.778,62	228.413,50
Herri Administrazio eta Justizia Saila	80.000	266.126,5	1.234.751,4
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	20.328	0	0
Enplegua eta Gizarte Politikak	709.285	17.495.786 ²	145.530
Ogasun eta Finantza Saila	0	250	250
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	60.134,48	88.850,71	553.992,71
Segurtasuna		0	4.000
Osasuna	2.166.074,04	309.460,05	25.000
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	111.000	470.000	58.177,9
4. TALDEA, GUZTIRA	3.273.274,14	18.777.101,88	2.250.115,51

² Kopuru horretatik, 16.811.910 euro adingabeen zaintzarako kontziliazio-neurriei dagozkie. VI. berdintasun-planeari adierazten den bezala, "langileen lan- eta familia-bizitzaren arteko kontziliazioa adingabeak zaintzeko" neurriaren eraginaz hausnartu behar da, kontziliazioaren eragin kaltegarria saihestea eta kontziliazio erantzunkidea sustatzea gogoan hartuta.



Guztizko zenbatekoa 2.249.865,51 € da; hau da, aurreko ekitaldikoa baino 16.527.236,37 euro txikiagoa. Alde hori ia guztiz bat dator norberaren kontziliazioa eta lan-nahiz familia-kontziliazioa lortzeko laguntzekin, zeinak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak seme-alabak zaintzeko kudeatzen dituen eszedentzien eta lanaldi-murrizketen bidez gauzatzen baitira. Iaz neurri horiek egokitzen jo ziren aztertuak izan ahal izateko, baina VI. Berdintasun Planaren onarpena eta horretan kontziliazioaz jasotzen den ikuspegia³ direla eta, azterketatik kanpo utzi ditugu ekitaldi honetarako, betiere berekin kontziliazio erantzunkidea sustatzen duten jarduerak ekarri ezean.

Bestalde, guztiz egokitzen jotzen da Herri Administrazio eta Justizia Sailaren aurrekontua milioi bat euro handitu izana iazko aurrekontuaren aldean; kopuru hori tratu txarren egileak berrezteko programetako jarduerari eta emakumeen aurkako indarkeriarako epaitegietatik datozen familia-deribazio bidezko elkarguneei dagozkie.

³ Plan honetako jarduera guztiek aitortzen dute administrazioek egindako ahalegina, zaintza-lanak laguntzeko zerbitzu publikoak sustatzeko (3 urtetik beherakoentzako tokia eskola publikoetan, mendekotasuna artatzeko sistema, seme-alabak zaintzeko familientzako laguntzak, eta abar), bai eta emakumeen eta gizonen lana, familia eta bizitza pertsonala uztartzeko beste laguntza batzuk emateko ere. Kontziliazioari eta zainketei lotutako erantzukidetasunik gabe, eta abian jarri diren ekimenei jarraitutasuna ematen bazaie, pertsona guztiei eta gizarteari zuzenean edo zeharka eragiten dien auzi bat konpondu gabe geldituko da.



BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK:

AURREKONTUA SAILAREN ARABERA eurotan	2015	%	Aldea 2015/2014(%)	2014	%	Aldea 2014/2013	2013	%	2012	Aldea 2013/2012
Lehendakaritza	106.475.000	1,13	3,69	102.553.918	1,12%	7,17%	95.688.000	1,10%	151.020.000	-36,6
Herri Administrazio eta Justizia Saila	225.117.000	2,39	1,76	220.173.634	2,40%	3,39%	212.953.000	2,46%	231.249.000	-7,9
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	423.680.000	4,52	3,04	410.819.817	4,48%	3,66%	396.312.000	4,57%	531.381.000	-25,4
Enplegua eta Gizarte Politikak	1.067.875.000	11,38	7,37	989.120.210	10,80%	24,25%	796.024.000	9,19%	1.074.010.000	-25,9
Ogasun eta Finantza Saila	97.643.000	1,04	-0,05	97.706.225	1,06%	5,17%	92.898.000	1,07%	105.980.000	-12,3
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	2.788.621.000	29,72	2,18	2.727.866.330	29,78%	3,7%	2.630.443.000	30,35%	2.925.028.000	-10,1
Segurtasuna	666.295.000	6,58	1,47	607.918.522	6,63%	4,3%	582.849.000	6,73%	653.934.000	-10,9
Osasuna	3.390.458.000	36,14	1,14	3.351.641.359	36,60%	2,7%	3.263.193.000	37,65%	3.406.549.000	-4,2
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	666.295.000	7,10	2,10	651.755.254	7,11	9,69%	594.157.000	6,86%	739.566.000	-19,7
GUZTIZKOA	9.432.459.000			9.159.555.269	100%		8.666.530.000	100%	9.820.729.000	

EAEko ogasunek zergen bidez 13.080.113.032 euroko guztizko kopurua biltzea espero dute hurrengo ekitaldian, aurreko urtean baino % 5,5 gehiago; 2014rako itxierako aurreikuspena, berriz, 12.402.103.000 eurokoa da.

Horrek esan nahi du sailen gastuan ez dela murrizketarik izango 2015ean, baina, erreferentziazko taulan ikusten den bezala, sail guztiek ez dituzte hein berean handituko beren aurrekontuak. Izan ere, Ogasun eta Finantza Sailean soilik izango da txikiagoa aurrekontua 2014. urtearen aldean: % 0,05 txikiagoa. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, berriz, % 7,37 handituko du bere aurrekontua. Hala ere, aurrerago ikusiko den bezala, berdintasun-politiketarako aurrekontua ez da aurrekontu osoen neurri berean handitzen; sail jakin batzuetan bereziki.

**BERDINTASUNERAKO AURREKONTUA SAILAREN AURREKONTUARI DAGOKIONEZ**

Saila	Sailaren Saila	Berdintasun Aurrekontua 1., 2., 3. , 4. taldeak	Sailaren Saila
Lehendakaritza	106.475.000	6.264.698,61	5,88357653
Herri Administrazio eta Justizia Saila	225.117.000	2.351.482,57	1,04922237
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	423.680.000	64.737,94	0,01527991
Enplegua eta Gizarte Politikak	1.067.875.000	1.637.972,67	0,15338616
Ogasun eta Finantza Saila	97.643.000	55.376	0,05670485
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	2.788.621.000	1.124.341,86	0,04031891
Segurtasuna	666.295.000	85.032,29	0,01378127
Osasuna	3.390.458.000	94.000	0,00277249
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	666.295.000	787.809,58	0,11833157
GUZTIRA	9.432.459.000	12.46.5451,52	0,13%

Sail guztien aurrekontu osotik % 0,13 soilik bideratzen da berdintasunera; iaz baino % 0,18 gutxiago, orduan % 0,31 bideratu baitzen. Zenbateko hori % 0,07ra jaisten da Emakunderen aurrekontua kanpoan utziz gero. Horrek esan nahi du berdintasun-politiken pisuak, oro har, behera egin duela sailetan. Emakunden ez bezala, lehenago esan bezala % 10 handitu duelako bere aurrekontua.

Ez dakigu Emakunderen sailen batetik transferitu den eta murrizketa horiek justifika ditzakeen programa edo jarduera espezifikoren bat egon ote den.

Sailaren aurrekontu osoa kontuan hartuta, berdintasun-politiketara diru gutxien bideratzen duen saila Osasun Saila da: % 0,001. Herri Administrazio eta Justizia Sailak, ordea, beste edozein sailek baino proportzio handiagoa bideratzen du politika horietara: % 1,04 Hala ere, kontuan hartu behar da azterketa honetarako bakarrik erreparatu zaiela aurrekontu-partida espezifikoak dituzten jarduerai, eta ez kalkuluei, eta kontuan hartu da zer ekarpen egin dion sail bakoitzak Ogasunari eta, jakina denez, aurrekontua egikaritu bitartean txostenetan adierazitakoak baino baliabide gehiago bideratzen direla.

**BERDINTASUNERAKO AURREKONTUA AURREKO URTEKOAREN ALDEAN**

Saila	Sailaren 2014. 1,2,2,4 TALDEA	Sailaren 2015. 1,2,2,4 TALDEA	2014/2015 aldea
Lehendakaritza	5.492.909	6.264.698,61	771.790
Herri Administrazio eta Justizia Saila	1.432.336	2.351.482,57	919.147
Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna	397.429	64.737,94	-332.691
Enplegua eta Gizarte Politikak	2.305.473 ⁴	1.637.972,67	-667.500
Ogasun eta Finantza Saila	53.396	55.526	2.130
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila	568.215	1.124.341,86	556.127
Segurtasuna	74.770	85.032,29	10.262
Osasuna	378.460	94.000	-284.460
Ingurumen eta Lurralde Politika Saila	949.631	787.809,58	-161.821
GUZTIRA	9.347.146	12.46.5451,52	

Aurreko taulan (berdintasunerako aurrekontua sailaren aurrekontuaren arabera) ikusi dugu berdintasunerako politikak, oro har, ez direla aurrekontu osoen hein berean handitu; taula honetan, berriz, ikus dezakegu zenbat handitu edo txikitu den sail bakoitzean aurreko urteko aurrekontuan jasotakoaren aldean, hau da, sail bakoitzaren berdintasun-politiketara bideratutako partidak zer neurritan egin duen gora edo behera 2014. urtearekin alderatuta.

Eta hala, ikusten dugu hazkunderik handiena Lehendakaritzan (Emakunderen aurrekontuaren ondorioz), Herri Administrazio eta Justizian eta Hezkuntzan gertatu dela.

Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean, berriz, behera egin du nabarmen berdintasunerako politiketara bideratutakoak 2014. urtea kontuan hartuta.

Ez dago daturik jakiteko zergatik gertatu diren murrizketa horiek.

⁴ Zenbateko horretan ez dira kontuan hartu 2014ko kontziliaziorako 16.811.910 euroak, 2015eko ekitaldiarekin errazago alderatu ahal izateko.



5.- DIRU-SARRERAREN AZTERKETA.

EAEko zerga- eta finantza-errealitatea aztertzea ezinbestekoa da aurrekontua eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren gaineko eraginak aztertzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoaren finantzaketa-sistemaren ezaugarri nagusia da zerga-sistema osatzen duten zerga gehienak biltzeko gaitasuna duela. Foru-ogasunek kudeatu eta biltzen dituzte zerga-sistema osatzen duten zerga guztiak, Ekonomia Itunaren araudian emandako banaketari jarraituz, hau da, Autonomia Fiskala izenekoari jarraituz. Horrek esan nahi du Euskal Autonomia Erkidegoak zerga-sistemako oinarritzko zerga guztiak kudeatu, bildu eta diseinatzeko dituela, murrizketa harmonizatuari lotuta. Horrela bada, lurralde historikoek nolabaiteko gaitasuna dute zergak arautzeko, baita zergok kudeatu eta biltzeko autonomia ere.

Hala ere, Eusko Legebiltzarrari dagokio zerga arloko koordinazio, harmonizazio eta lankidetzari buruzko arauak onestea.

Araudien ikuspegitik, zuzeneko zergei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoak berezko zerga hauek ditu: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ), Oinordetzen gaineko Zerga, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Zeharkako zergei dagokienez, zerga handi bien (Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Zerga Bereziak) harmonizazio-maila ia erabatekoa da, zerga horien izaeratik eratorrita, Europar Batasun osoan ere harmonizatuta daudela. Gauzak horrela, foru-ogasunen eskumenak zergaren kudeaketaren alderdi zehatzen ingurukoak baino ez dira. Aldiz, bilketarako gaitasuna kontuan hartuta zeharkako zergen arteko hirugarrena (Ondare-eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga) modu autonomoan arau dezakete, neurri handi batean, EAEko erakundeek.



GENEROAREN ERAGINA ZERGETAN

Itxuraz neutroa den arren, zerga guztiek dute generoen arteko desorekaren bat, esplizituki edo inplizituki agertzen dena, duen izaerarekin bat etorrita (Stotsky, 2005).

Generoaren araberako desoreka esplizitua erraz identifikatzeko modukoa da, ohiko moduan idatzita jasota baitago kodean edo zerga-araudietan. Bereizketa esplizitua nabariago azaltzen da pertsona fisikoen gaineko zuzeneko zergetan. Adibidez, ezkontideari dagokionez zerga-arinketak esleitzearen bidezko baterako aitortopenean.

Genero-joera inplizitua zerga-sistemak gizonen eta emakumeen ongizateari eragiten dion moduan dauden desberdintasunetan adierazten da, eta, horrenbestez, identifikatzen zailagoa da, horretarako beharrezkoa delako ikustea nola eragiten dien zerga-sistemak gizonei eta emakumeei. Adibidez, baterako aitortopenean, zerga-tasa marjinalen eta bigarren errenta-jasotzaileen progresibotasuna. Edo, banako adierazpenean, zerga-desgrabazioen izendapena.

Zeharkako zergei dagokionez, ez dute generoen arteko desoreka espliziturik izaten, ondasun edo zerbitzuak eskuratzean edo ondasun eta eskubideak eskualdatzean sortzen delako zerga. Hala ere, badaude zerga horien desoreka azaltzen duten adibideak, hain zuzen ere emakumeek bakarrik eskuratutako produktuei ezartzen zaienean zerga, eta ez gizonen eta emakumeek bereizi gabe eskuratutako beste antzeko produktu batzuei.

Zuzeneko zergen eragina. PFEZ

PFEZ da gure zerga-sisteman genero-eragina nabariaren azaltzen duen zerga, emakumeek eta gizonen zerga-aldian jasotzen dituzten errentei ezartzen dizkielako zergak. Generoen arteko desoreka inplizitu nabariena PFEZen familia-mailako zergapetze guztietan ikusten da (baterako tributazioaren kasuan). Eraitza da diru-sarrerak jasotzen dituen ezkontide bakarra duten ezkonbikoteei laguntzen zaiela, zerga-arintzearen bitartez. Zerga-arintze hori handiagoa izango da emaztearen lan-errenta txikiagoa eta senarraren lan-errenta handiagoa den heinean. Hala ere, banakako zergapetzeetan ere egon daiteke generoen arteko desoreka, zergak abantailaren bat ematen badio ezkontideren bati duen egoera zibilaren ondorioz.

Familia-mota ezberdinei salbuetsitako gutxienekoak asimetriakoki aplikatzearen ondorioetako bat da PFEZak ez dituela modu homogeneoan zergapetzen familia guztiak, tratu mesedegarriagoak ematen baitizkie guraso biko familiei guraso bakarreko familiei baino — gehienetan (% 85 baino gehiago) emakumeak dira guraso bakarrek—, fiskalitate txikiagoa baitute.



PFEZek eragin ezberdina du soldatapeko gizonezko eta emakumezko langileengan, lan-merkatuan gizonek eta emakumeen duten banaketa ez delako simetrikoa, batez ere gizarte- eta ekonomia-egoera ezberdinak dituztelako eta familia barruko zaintza-lana ezberdin banatuta dagoelako.

Alde horretatik, Europako Batzordeak azken urteetan adierazi du bere lehentasunezko helburuetako bat "gizarte- eta zerga-eskubideak indibidualizatzea" dela, gizonek eta emakumeek subjektu independente gisa jardun ahal izan dezaten lana bilatu eta lan-bizitza eta familia-bizitza uztartzeko orduan, eta, horrela, sexuagatiko diskriminazio-tratua saihesteko. Gure zerga-sistema oztopoa da tratu-berdintasun hori lortzeko, eta herrialde kideei zerga-sistemak erreformatzeko eskatu zaie, banakako zerga pertsonalak ezartzearen mesedetan.

Zeharkako zergen eragina.

BEZa estatu-mailako zerga da, eta Estatuari dagozkio horri buruzko arauak ezartzeko eskumenak. Hala ere, genero-ikuspegitik ere azter daiteke, batez ere salbuetsitako zerga-egitateek eta murriztutako nahiz txit murriztutako tasek eragindako zerga-gastuen bitartez.

Beste alde batetik, BEZaren izaera ez da oso mailakakoa, zuzenean dagoelako lotuta kontsumoarekin. Familietako aurrekontuan oinarritzko produktuen kontsumoa pisu erlatibo txikiagoa da errenta-mailetan gora egin ahala. Horrenbestez, kontsumoaren gaineko tributazioak eragin handiago du baliabide gutxiko pertsonengan eta aurrekontu gehiena familiako kontsumorako erabiltzen duten pertsonengan (horixe da emakumeen kasua). Erregresiboak dira, tasa berbera aplikatzen baitaie produktu bera kontsumitzen duten pertsona guztiei, pertsonen arteko errenta-ezberdintasunak kontuan hartu gabe.

ZERGEN GENERO-ERAGINA EAEko AURREKONTUETAN

Ekonomia eta Ogasun Sailak egindako **Euskal Ogasunari buruzko Urteko Txosten Bateratua 2010** txostenari jarraiki, PFEZ zergan baterako tributazioa egitearen ondoriozko zerga-gastua (hau da, diru-bilketan izandako galera) 190,852 milioi euro da.

Kasu gehienetan, baterako tributazioak zera esan nahi du, gizon bat etxetik kanpo lan egiten ez duen emaztearekin ezkondata dagoela eta emaztearen "gutxieneko pertsonala" senarraren zerga-oinarrian aplikatuta, zenbateko aldakor bat desgrabatzen duela; senarraren errenta-maila zenbat eta handiagoa izan, zenbateko aldakor hori orduan eta handiagoa izan da. Adibidez,



2003ko datuen arabera, 7.500 euro irabazten dituen gizon batek 20 euro desgrabatzen ditu emazteak diru-sarrerarik ez duelako; aldiz, 66.000 euro irabazten dituen beste batek 1.530 euro desgrabatzen ditu kontzeptu berdinarengatik.

Zer gizarte-onura dakar partida horrek? Esan gabe doa etxeko lana aintzatetsi egin behar dela. Baina hona hemen arazoa: nork ordaindu behar du? Eta, horretaz gain, nork egin behar du? Nork ordaindu behar duen galderari dagokionez, 66.000 euro irabazten dituen senarra duelako, bidezkoa al da emazteak desgrabatzen dituen 1.530 euro horiek aurrekontuaren kargura eta, beraz, zergapekoaren kargura egotea? Kontuan izan senar horrek ez duela soldatarik ordaintzen emaztearen lanarengatik eta, gainera, ez duela zergarik eta Gizarte Segurantzako kotizaziorik ere ordaintzen. Eta ez dugu ahaztu behar, gainera, emazte horrentzat zer ondorio izan ditzakeen bere senarrak desgrabatu ahal izatea berak ez duelako diru-sarrerarik. Itxuraz, emaztea ere onuradun dela pentsa daiteke, familia osoarentzat desgrabazioa delako baina emazteari oso garesti ateratzen zaio bizi osoan: Lehenik, mendekotasun ekonomikoaren katearekin lotuta geratzen delako. Bigarrenik, senarra falta denean, pobrezian geratuko delako.

Emakume bat etxetik kanpo lanera joan eta bere soldata irabazten duenean, senar-emazteen batera edo bereizita ordain ditzakete zergak. Bakoitzak bere aldetik egiten badu, senarrak ezin izango du emaztearen gutxieneko pertsonala kendu, emazteak berak kendu beharko baitu bere soldatatik. Emaztearen soldata txikiagoa izan ohi denez, desgrabazio hori ere txikiagoa izango da, edo baita ezdeusa ere. Zerga batera ordaintzen badute, ez da horrelakorik gertatuko baina emazteak ezin izango du baliatu PFEZan dagoen beste desgrabazio bat: 'lan-errendimenduei lotutako desgrabazioa'. Izan ere, azken desgrabazio horrek errenten muga bat du eta, baterako deklarazioaren kasuan, bien soldatak hartzen dira kontuan. Mekanismo konplexu horien ondorioz, ezkondata dagoen emakume bat, gutxieneko soldata bat izanik, % 48 ordaintzera ere iritsi daiteke PFEZarekin eta Gizarte Segurantzako kotizazioekin. 'Ezkontzagatiko penalizazioa' esaten zaio horri. (Maria Pazos, Generoen arteko desoreka errentaren gaineko zergan)

Baterako tributazioagatiko desgrabazioa, beraz, faktore negatiboa da, emazteak ekonomikoki senarren mendeko izaten jarraitzeko lagungarri baita. Emakume horiek ez dute kotizaziorik metatzen, ez eta lan-esperientziarik ere. Baterako tributazioan gastua ekitatiboa ez denez, hainbatek uste du horri eutsi egingo zaiola, ekonomiarentzat errentagarria delako hein batean. Baina hori ez da hala, ezta hurrik eman ere. Aitzitik, zerbitzu publikoetan aurrezten dela kontuan izanik ere, emakumeak etxeko lanetan espezializatzea ez da ez eraginkorra, ez produktiboa gaur egungo gizartean. Demagun emakume batek, prestakuntza-maila handia izan dezakeen emakume batek bizi osoko lanbide-errendimendua sakrifika dezakeela seme edo alaba bat, bi edo gehienez ere hiru zaintzeko, baina bere dedikazioaren benetako erabilgarritasun aldia hamar

urte inguru izango da. Zerbitzu publiko gehiago izanez gero eta gizonak etxeko lanetan gehiago inplikaturiko balira, emakume horrek lanpostu kalifikatu bat izan zezakeen eta herrialdearen giza kapitala modu eraginkorragoan baliatzen lagunduko luke. (Maria Pazos)

Ekonomia eta Ogasun Saileko Aurrekontu Zuzendaritzak badaki zerga guztiek generoen arteko desorekak dituztela eta, beraz, garrantzitsua dela generoaren ikuspegitik aztertzea. Hala ere, eta joera horren jakinaren gainean egon arren, sexuaren arabera bereizitako estatistikarik eta adierazlerik ez izatearen ondorioz, ezin dugu zorrotz eta sakon aztertu euskal fiskalitatea, ez eta 2015. urterako EAEko aurrekontuetan zehaztutako diru-sarrerak ere. Uste dugu gai horri hurrengo ekitaldietan heldu behar zaiola aurrekontuak genero-ikuspegitik prestatzea helburu izango duen proiektu baten barruan.



6.- GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak honako hau dio 19. artikuluan, **Generoaren arabera eragina aurretiaz ebaluatzea izenekoan**: "Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean".

Hau da, arauak eraginpean hartuko duen eremuan emakumeen eta gizonen gizarte-egoera zein den badakigularik —sexuren arabera izan daitezkeen desberdintasunak identifikatzearren—, proiektatu den jarduerak ondorio positiboak edo kontrakoak izan ditzakeen aztertu behar da, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko arautu edo esku hartu nahi den gizarte-testuinguruan. Kasu honetan, gizarte-testuinguruaren barruan euskal herritar guztiak daude, eta bere jarduera-esparrua sektore anitzekoa da; hau da, esparru guztiak biltzen ditu: hezkuntza, kultura, ekonomia, osasuna eta abar.

Gobernu osoaren jarduerak edo, bestela esanda, haren politika publikoek desberdintasunak ezabatu eta berdintasuna sustatzeari begira zer eragin duten jakiteko, i) alde batetik, programa guzti-guztiak aztertu beharko genituzke, dela programa horien onuradunen ikuspegitik begiratuta, dela programen xede diren talde espezifikoek (gizon/emakumeak, neska/mutilak, berdintasuna sustatzea eta abar) ikuspegitik begiratuta, (ii) eta, bestetik, politika publiko (programa) horiek guztiek gizartean izan duten benetako eraginaren berri izan beharko genuke.

Alabaina, ez da erraza izaten gizartean aldaketak eragitea helburu duten politika publikoek (berdintasun-politikek, esaterako) gizartean zer nolako eragina izaten duten jakitea, horretarako denbora behar izaten baita, gizarte-aldaketak epe luzekoak izaten direlako. Horri dagokionez, 2012an Emakundek ikerketa hau sustatu zuen: "Adierazle-sistema. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna"; hartan jasotako adierazle estrategikoen bitartez, gure gizartea sakontasunez beha daiteke eta Berdintasun Planean eta Legean ezarritako helburuak betetzen ari ote diren jakin. Zehazki, berdintasun-politiken hartzaile diren kolektiboen egoera zertan aldatu den jakin daiteke, eta gizartean, oro har, emakumeen eta gizonen egoera zein



den; bai eta zer eremutan lortzen ari diren aurrerapenak azkarren lortzen eta eragozpenak non diren handien.

Gure gizartean izandako benetako eraginaren berri izatea ahalbidetuko diguten adierazle horiek garatu eta ezarri bitartean, eta abiapuntutzat hartuta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak egiturazko eta kultura-arloko desberdintasun baten ondorio direla, eta politika publikoen bitartez esku hartu behar dela berdintasunaren alde egiteko eta desberdintasun horiek murrizteko edo kentzeko, Ogasun eta Finantza Sailean uste dugu soilik berdintasun-politiketara bideratutako gastuen azterketa labur bat egin behar dela. Baina, lehen esan dugunez, politika horien benetako eragina ezin da neurtu eta, halaber, ezin ditugu alde batera utzi berdintasunaren alde bideratzen diren baliabideak.

Aipatu egiturazko izate horren ondorioz, eta desberdintasun horiek txikitze edo ezabatze, politika publikoen esku hartzeak zeharkakoa izan behar du. Zeharkakoa izate horrek esan nahi du politika publiko guztiek genero-ikuspegia⁵ jaso behar dutela beren jarduketa guztietan, eta ez bakarrik gizarte-politika jakin batzuetan.

Horri dagokionez, politika publikoetarako estrategiak biltzen dituen aurrekontu-dokumentua "jarraibide ekonomikoak" dira; haien zeregin nagusia da aurrekontuak egiten diren testuingurua aurkeztea sailei eta gastua kudeatzen duten zentroei, eta,aldi berean, orientabide argiak ematea haiei eman nahi zaien eduki ekonomikoari dagokionez. Hartara, Ogasun eta Finantza Sailak baliabideak esleituko dizkio sail bakoitzari, jarraibide hauetan bildutako politika publikoetarako lehentasunei eta jardunei jarraiki⁶.

Bada, 2015erako jarraibide ekonomikoek zeharkako zenbait politika aipatzen dituzte (ingurumena, osasuna, euskara eta abar), baina ez dituzte berdintasun-politikak aipatzen, ez eta haiek zeharkakoak izateko beharra ere⁷. Deigarria da ezen, "2012-2016ko Gobernu Programa" delakoan esaten den bezala, gobernu honen lehentasunetako bat izanik Generoko Berdintasun Indizean Euskadi munduko herrialdeen buruan kokatzea, koherentzia horri eutsi ez izana jarraibide ekonomikoak prestatzean.

⁵ 4/2005 Legearen ondoretarako, honako hau da genero-ikuspegia txertatzea: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrianak modu sistematikoan kontuan hartzea, eta, horretarako, ezberdintasunak ezabatze edo berdintasuna sustatzeko helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta haien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan.

⁶ Jarraibide nagusiak txosten honetako 1.1. atalean kontsulta daitezke: Egoera ekonomikoa eta gobernu-lehentasunak.

⁷ Hala ere, ikasleen aukera-berdintasuna eta garapen integrala bermatzen laguntzeko hezkuntza-politika ezartzea jasotzen dute, gizarte zuzenagoa lortzeko, bai eta kontziliazioaren aldeko neurriak sustatzea ere.



GENEROAREN ARABERAKO ERAGINAREN AURRETIAZKO EBALUAZIOA⁸

6.- Aurreikusten al da emakumeek eta gizonek etorkizuneko arauaren edo administrazio-egintzaren ondoriozko onuretan edo emaitzetan izango duten presentzia lagungarria izango dela sektorean desberdintasunak gutxitzeko?

Emakumeek eta gizonek proiektuan duten presentzia euskal herritar guztien artean dutenarekin bat dator (% 51 emakumeek; %49, berriz, gizonek), eta sektoreak esparru guztiak biltzen ditu: Hezkuntza, Osasuna, Kultura eta abar. Hala ere, EAEko emakume eta gizonen egoerari dagokionez, oraindik ere emakumeen aurkako desoreka dago esparru guztietan, diagnostikoan ikusten den bezala.

Ez da aurreikusten arauaren aplikazioaren ondoriozko onurek epe laburrean desagerraraztea emakume eta gizonen arteko desoreka hori; bai, ordea, epe luzean egiazko eragina izatea gizartean. Izan ere, aurrekontu horien bidez sustatutako berdintasun-politika espezifikoak eta mainstreamingaren bultzada lagungarriak izango dira, dudarik gabe, berdintasuna sustatzeko eta aurrera egiteko berdintasunezko gizartearen eraikuntzan.

7.-Aurreikusten al da etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak desberdintasunak desagerrarazi edo, behintzat, gutxitu egingo dituela baliabideak eskuratzeari dagokionez?

Diagnostikoan erakutsi den bezala, EAEko emakumeen eta gizonen arteko egoera oraindik ere desorekatua da, emakumeak okerrago baitaude esparru guztietan: eskubideak eta baliabide eta onura sozialak eskuratu, kontrolatu eta erabiltzeko orduan; erabakiak hartzean; lan-esparruan; etxe- eta zaintza-lanetan; denboren erabileran; indarkeria eta abarretan.

Txosten honen 2. atalaren arabera, lan-kolokatasunak eragin handiagoa du emakumeengan gizonengan baino, eta bi sexuen arteko soldata-aldea nabarmena baino nabarmenagoa da. Erostea ahalmenari dagokionez oso handia da generoen arteko desoreka, eta horrek esan nahi du pobrezia eragin handiagoa duela emakumeengan. Gaur egun, pobrezia-arriskuan dauden pertsona guztiak kontuan hartuta, % 82,9 emakumezkoak dira. Lanbiden adierazi dute jarduketak egingo direla pobrezia emakumezko herritarren artean duen eragin handiagoa prebenitzeko eta arintzeko, eta pobrezia feminizazioa gutxitzeko (argi eta garbi guraso bakarreko egoerei lotuta). Horrelako ekintzetarako aurrekontu-krediturik zehazten ez den arren, ekintzok erakunde autonomoaren memorietan jasotzen dira; horregatik, baliabideak bideratuko direla ulertzen da, zehaztuta ez badaude ere.

⁸ Atal hau bete da abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpena betez.



Hezkuntza-eremuko datuak aztertuz gero, konturatuko gara erronkak aldatu egin direla hezkuntzan. Izan ere, hezkuntzarako sarbidean ez dago desberdintasunik baina ikasketak eta lanbideak hautatzeari dagokionez, eremu horretan bereizketa nabarmena da eta horrek esan nahi du hezkuntza-sisteman sexismoa eta genero-estereotipoak errepikatzen ari garela, neskak eta mutikoak modu desberdinean gizarteratzen dituzten mekanismoen bitartez. Hezkuntza Sailak sisteman genero-indarkeriaren prebentzio eta berdintasunerako plan estrategikoa ezartzean, helburua da, besteak beste, ikaslea orientatzea bere bizi-, ikasketa- eta lanbide-ibilbidea hauta dezan, askatasunean eta aukera-aniztasunean oinarrituta, eta genero-arloko baldintzapenik gabe. Hortaz, aurreikustekoa da plan hori abiaraztea lagungarria izango dela gaur egun aukera akademikoan eta, beraz, profesionalean dagoen bereizketa gainditzeko.

Gizonek emakumeek halako bi baino gehiago irabazten dute lan-errentengatik; errenta pertsonala nabarmen txikiagoa da (11.000 euro txikiagoa) emakumeen artean gizonen artean baino. Egia da lana duten emakumeen tasa txikiagoa dela eta emakumeen artean gehiago direla lan partzialak dituztenak, baina generoaren arabera aldea gehiegizkoa da lan-errentan. Lan-errentaren ondoriozko diru-sarrerari dagokionez, gizonen diru-sarrerak emakumeen diru-sarreraren bikoitza baino gehiagokoak dira. Hori horrela, 2006an (argitaratutako azken datua urte horretakoa da), zuzendari gerente baten laneko batez besteko urteko errenta 65.739 euro zen eta emakume gerente batena, ordea, 42.376 euro. Egungo arauan ez da berariazko neurririk ikusten generoaren arabera soldata-aldea murriztu ahal izateko; adibidez: zehapenak kontrolatzea, soldata bera jasotzeko eskubidea urratzen denean; edo soldaten gardentasuna hobetzea. Ez eta enpresa-esparruan emakumei erabakiak hartzen diren eta, beraz, hobeto ordainduta dauden postuetan sartzeko aukera ematen dien neurririk ere.

Era berean, ez da inolako neurrik aipatzen enpleguaren egiturak bizitza pertsonalaren eta familia-bizitzaren beharretara egokitzeko, hain gutxi zerbitzu komunitarioak, prestazio ekonomikoak eta zerga-neurriak sortu eta egokitzeko.

Osasun-baliabideei dagokionez, jakina da emakumeen biz-itxaropena gizonena baino sei urte eta gehiagokoa dela, baina jakina da, halaber, bizitzako azken urteetako bizi-kalitateak okerrera egiten dutela emakumeen kasuan, eta desgaitasunik gabeko bizitza izateko esperantza nabarmen txikiagoa dela emakumeentzat gizonentzat baino. Alde horretatik, ez da ikusten desoreka hori ezabatzeke edo txikitzeke esku-hartze edo programa espezifikorik.

Aipamen berezia merezi du doako laguntza juridikorako legearen aplikazioa bermatzen duen Herri Administrazio eta Justizia Sailaren programak, arreta berezia jartzen baitu laguntza juridikoa emateko zerbitzuaren eta ofiziozko txandaren finkapenean, eta aukera ematen baitie indarkeria matxistaren eta/edo eraso sexualen biktimei baliabide hori erabiltzeko.

Baliabideak erabiltzeko aukera horri lotuta daude, halaber, Hezkuntza Sailaren programak, genero-indarkeriaren biktimei diren ikasleei aplikatzen zaizkien tasak eta administrazio-eskubideak finantzatzen dituelako Euskadiko unibertsitateetan.

Azpimarragarria da Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren jarduna, dedikazio eskusiboko eta lanaldi osoko bi langile-postu sortu baititu (teknikoa bata, juridikoa bestea) genero-indarkeriaren



esparruan zerbitzuak kudeatzeko; izan ere, horren ondorioz, biktimen arreta hobetu egingo da, bai eta haiek gainerako baliabideetara duten sarbidea ere.

Azkenik, aurrekontuei buruzko lege-proiektuaren seigarren xedapen gehigarriak aditzera ematen du % 7 murriztuko dela laguntzen, diru-laguntzen eta prestazio ekonomikoen zenbatekoa, bereziki Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean eta familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko 177/2010 Dekretuan xedatuta daudenena. Egiaztatuta dago diru-sarrera bermatzeko errentaren onuradunaren profila emakumezkoa eta 35-50 urte bitartekoa dela, seme-alabak dituela, eta kontziliazio-neurrien feminizazioa gertatu dela, eta, horrenbestez, zantzu guztien arabera, badirudi murrizketa horrek eragin kaltegarria izango duela berdintasunaren sustapenean.

8.- Erabakiak hartzeari dagokionez, etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak aurreikusten al du emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua izatea edo, behintzat, ordezkartza hori esparruan duten presentziaren maila berekoa izatea?

Txosten honetako 3. atalean EAEko administrazio-egintzaren ordezkartza aztertzen da, eta bertan ondorioztatzen da Eusko Jaurlaritzan ordezkartza ez dela orekatua goi-kargudunei dagokienez. Talde horrek garrantzi handia duenez aurrekontuak egiteko erabakiak hartzen, esan liteke eragin negatiboa dagoela araua egin eta gauzatzeko prozesuan emakumeek eta gizonen ordezkartza dagokionez. Gainera, administrazio-egintzaren gainerako langileak kontuan hartuz gero, zenbaki absolutuetan gizon baino emakume gehiago egon arren, gizonen ordezkartza emakumeena baino handiagoa da goi-mailetan, hau da, zerbitzu-buruen eta arloetako arduradunen artean, eta horiek ere zuzenean hartzen dute parte araua egiteko orduan. Gauzak horrela, araua eta aurrekontu-programetan ez da aurreikusi goi-mailako lanpostuetan (batez ere buruak eta arduradunak) emakume gehiago edo emakumeen ordezkartza handiagoa egoteko aukera, eta horrek eragin negatiboa esan nahi du.

9.- Aurreikusten al da etorkizuneko araua edo administrazio-egintzan proposatutako helburuak eta neurriak lagungarriak izango direla emakumei eta gizonen egokitzen zaizkien gizarte-arauak eta balioak gainditzeko edo aldatzeko?

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoeraren diagnostikoan ikusi dugunez, desberdintasuna ez da gauza isolatua; gizarte patriarkaletako kulturaren arloko eta egiturazko desberdintasuna da eta lanaren sexu-banaketa oinarritzen diren gizarte-paperak eta rola definitzen dituzten kultura-ereduen bitartez betikotzen dugu.

Eredu horien arabera definitzen dira gure rola, eta horrek eragina du gure prestakuntza-hautuan eta hezkuntzaren eta lanbidearen arloko bereizketan. Hezkuntza Sailak hezkuntza-sisteman genero-indarkeriaren Prebentziorako eta Berdintasunerako Plan Estrategikoa ezartzeak, besteak beste, hezkidetzazko eskola-eredua bermatu nahi du, pertsonen erabateko garapenean oinarrituta, eta



sexuaren araberrako estereotipoak eta rolak alde batera utzita, eta, horrek adierazten du plan hori, ziur aski, lagungarria izango dela ikasleen gizarte-arau eta -balio jakin batzuk gainditzeko edo aldatzeko, eta , horrenbestez, eragina izango duela prestakuntzaren eta lanbideen bereizketarik gabeko aukeraketan.

Uztartze sozialeko neurriei dagokionez, oraindik ere emakumeek eskatzen dituzte batez ere lanaldi-laburtzeak, eskatutako laburtzeen % 6,2 bakarrik baitira gizonenak. Seme-alabak zaintzeko lan-eszedentziak direla eta, eskatzen dituzten gizonen kopurua ez da % 3ra iristen. Izan ere, egindako zenbait azterketa eta ikerketaren arabera, erantzunkide ez diren kontziliazio-neurriak nahi gabeko ondorioak izaten ari dira berdintasunean, eta, hala, kontziliazioaren ondorio maltzurra delakoa eragiten ari dira, lanaren sexu-banaketa sortu eta sustatzearen ondorioz. Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak 17.330.000 euro erabiliko ditu bizitza pertsonala eta lan- nahiz familia-bizitza kontziliatzeko, baina 30.000 besterik ez kontziliazio erantzunkideko programarako, eta horrek adierazten du araua ez dela lagungarria izango gizarte-arauak edo -balioak ildo horretan aldatu edo gainditzeko.

Herri Administrazio eta Justizia Sailak baliabideak bideratzen ditu generoko indarkeria-delituetan tratatu txarren egile direnak berrezteko programetara eta indarkeria matxistaren eta/edo eraso sexualen biktima direnentzako Ofiziozko Txandako langileak prestatzera, eta horrek, dudarik gabe, berekin ekarriko du Justiziako kolektiboak hobeto jakitea zer arau sozial esleitzen zaizkien emakume eta gizonei.

Era berean, pentsatzen da arau sozialen gaineko sentsibilizazioa eta ezagutza sustatzen dituztela Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak berdintasunaren eta aniztasun afektibo-sexualaz nahiz genero-identitateaz sentsibilizatzearen aldeko jarduketak egitera bideratzen dituen programek. Bai eta kolektiboekiko koordinazioa indartzea ere LGTB politikekin zerikusia duten gaitan, ekintza positiborik zehazten ez bada ere.

Azpimarratzekoa da genero-ikuspegia duen prestakuntza ematea gazteria-alorreko eragile eta teknikari espezialistei, bai genero-ikuspegia duten prestakuntza-ekintzen bidez, bai genero-alorreko ekintza espezifikoen bidez, betiere Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak sustatuta.

10. – Bermatzen al da diskriminazioa galarazteko eta berdintasuna sustatzeko arauak bete eta beste tresna juridikoak erabiliko direla? Eta aurreikusten al da haiek hobetzea?



7.- EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK. AURREKONTUAK GENERO- IKUSPEGIA KONTUAN HARTUTA

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA BULTZATZEKO ETA EZBERDINTASUNAK EZABATZEKO NEURRIAK ⁹		
Jaso al da arau edo administrazio-egintzarako proiektuaren testuan neurriren bat...	Adierazi zer artikulutan jasotzen diren neurriak eta haien deskribapena	
...genero-ikuspuntua kontuan hartzea sustatzeko?	Emakumeen eta gizonen egoera desberdina hobeto ezagututa	
Bai	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna printzipio, helburu gisa edo adierazpen nahiz azalpen moduan jasota	<u>Arau teknikoak:</u> "Gobernuak aurrekontu-politikan generoarekin loturiko ikuspuntuarekiko konpromisoa hartu duela adierazten saiatuko beharko da aurrekontu-dokumentazioan." "Ahalegina egingo da aurrekontu-politikek genero-ikuspuntutik duten eraginari buruzko informazioa jasotzeko; alde horretatik, eta ahal den neurrian, kasuan kasuko adierazleak aipatuko dira." <u>Jarraibide ekonomikoak:</u> "Eusko Jaurlaritzak ikastetxe gehiagotara zabalduko du hezkuntza-sisteman hezkidetzeta eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida-plana, jarrera diskriminatzaileak ezabatzeko eta elkarbizitza baketsua sustatzeko. Lehendakariarekin batera bultzatuko du Bake eta Bizikidetzeta Plana ikasgeletan. Genero Berdintasunerako Plana ezartzen ere lagunduko da." "Ikasle bakoitzak bere gaitasunak ahalik eta gehien garatzeko ekimenak abiarazi behar dira. Hezkuntza-politikak, era berean, ikasleen aukera-berdintasuna eta garapen integrala bermatu behar du, gizartea justuagoa izan dadin." "2015ean arreta berezia eskainiko zaie gazteak eta gizartean aukera gutxien duten kolektiboak (desgaituak, 45 urtetik gorakoak, gizarte-bazterketaren arriskuan daudenak eta iraupen luzeko langabeak) lan-merkatuan sartzen laguntzen duten politika publikoei, baita lana eta familia uztartzen laguntzen duten neurrien sustapenari ere."
	Hizkuntzaren erabilera ez-sexista eginda edo sustatuta	Bai, oro har. Testu osoan
	Genero-gaietan prestakuntza duten pertsonen eta/edo berdintasunaren alde lan egiten duten erakundeen parte-hartzea sustatuta	
	Berdintasuna eduki edo irizpide gisa hartuta (sartzeko, baloratzeko edo zeregina betetzeko) hautaketa-prozesuetan, diru-laguntzetan, hitzarmenetan, prestakuntza-	

⁹ Arauaren proiektuaren testuan ez da neurririk jasotzen desorekak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko, baina, txosten honetan adierazten den bezala, aurrekontu-memoriek, beti esplizituki ez bada ere, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburuak jasotzen dituzte. Ikus 8. paragrafoa.- SAILEN AURREKONTU-PROGRAMEN ERANSKINA, txosten honetakoa. Hala nola txosten honetako 6. puntuan egiten den azterketa.



	jardueretan eta abarretan.	
	Beste batzuk; zehaztu: _____	
... emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzeko? EZ	Hautatzeko epaimahaietan	
	Sariak banatzeko epaimahaietan	
	Kontsulta-organoetan	
	Zuzendaritza-organoetan	
	Beste batzuk; zehatu: _____	
... ekintza positibokoa? EZ	Emakumeentzat	
	gizonak berdintasunaren alde inplikatzeko	
	Beste batzuk; zehatu: _____	
... itxuraz neutroa dena, baina aurreikusteko moduko genero-eragin positiboa izan dezakeena? EZ	Indarkeriaren biktimantzat	
	Guraso bakarreko familientzat	
	Mendekotasuna duten pertsonak zaintzen dituztenentzat	
... diskriminazio asko jasaten dituzten emakumeen desberdintasunak gutxitzeko? EZ	Adinagatik	
	Gizarte-mailagatik	
	Sexu-aukeragatik	
	Minusbaliotasunagatik	
	Etnia eta/edo arrazagatik	
	Nazio-jatorriagatik	
... debekuzkoa edo zehapenezkoa? EZ	Sexua dela eta diskriminatzeagatik	
	Hizkuntzaren eta irudien erabilera sexista egiteagatik	
	Beste batzuk; zehatu: _____	

Ekonomia eta Ogasun Sailean uste dugu arau honek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak gutxitzea eta/edo desagertzea eta berdintasuna sustatzea lortzera bideratutako neurrietako bat Aurrekontuei buruzko Legea bera hobetzea dela; gure ustez, genero-ikuspegia arauan txertatzea izango litzateke hobekuntza hori, etapa guztietan (azterketan, lantzean eta egikaritzean). Izan ere, baliabideen birbanaketa orekatua lortzeko funtsezko tresna izaki, aurrekontuak zeharkako tresnen artean zeharkakoentzat ere hartzen dira, administrazioan mainstreaminga txertatzeari dagokionez.

Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari AGI-Aurrekontuak Genero Ikuspegia kontuan hartuta esaten zaio, eta administrazio publikoaren diru-sarreraren eta gastuen politikek emakumeengan eta gizonengan izaten dituzten ondorioak agerian uzten ditu. Genero-ikuspegi kontuan hartzen duen aurrekontu batean, emakumeek eta gizonek baliabide publikoen banaketan dituzten premiak, egoerak, baldintzak, eskubideak eta betebeharrak txertatzen dira.

Gaur egun, Ogasun eta Finantza Saila aztertzen ari da zein den prozesurik egokiena genero-ikuspegiko aurrekontuei osotoro heldu ahal izateko.



8.- AURREKONTU-PROGRAMEN ERANSKINA, SAILKA

Eranskina: Lehendakaritza

1. TALDEA	Helburu bakartzat emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea eta/edo berdintasuna sustatzea duten programak.	Egitaraua: 3221
		EMAKUMEARENTZAKO AUKERA-BERDINTASUNA SUSTATZEA
Arduraduna:	01. LEHENDAKARITZA / EMAKUNDE	
Helburua:	POLITIKA PUBLIOETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO ETA EMAKUMEENTZAKO EKINTZA POSITIBOA GARATZEKO AUKERA AHALBIDERATZEA EDO SUSTATZEA.	
1. ekintza:	Emakumearen Euskal Erakundea diru baliabideez hornitu, erakunde hori sortu zuen legean eta emakumeen aurkako indarkeria biktimen atentziorako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotako egitekoak bete ditzan, eta Eusko Jaurlaritzaren Administrazio Orokorrean erakunde horrek kudeatzen dituenak lagundu.	
Aurrekontu-kreditua:	5.776.000 €	

2. TALDEA	Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	Egitaraua: 1121
		SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA
Arduraduna:	01. LEHENDAKARITZA. LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA / ARAUBIDE JURIKIOAREN ZUZENDARITZA	
Programaren helburua	BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATZEA SAILEAN ETA LANKIDETZA ZUZENDARITZEKIN ETA EREMUEKIN, 4/2005 LEGEA ETA BERDINTASUN PLANA AURRERA ERAMATEKO	
Berdintasuneko helburua	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 11. artikulua agindutakoa betetzea. Artiku horretan ezarritakoaren arabera, Autonomia Erkidegoko Administrazioak bere egiturak egokitu beharko ditu, eta horren bide Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzean administrazio-unitate bat egongo da, eginkizun hauek betetzeko: saileko zuzendaritza eta arloak eta horri atxikitako erakunde autonomo, ente publiko eta organoak sustatzea, koordinatzea eta horiekin elkarlaneara aritzea, horrela lege honetan eta Eusko Jaurlaritzak onetsitako berdintasun planean xedatutakoa betetzeko. Unitateok posizio organiko eta harreman funtzional egokia izan behar dute, bai eta beren helburuak bete ahal izateko aurrekontu-zuzkidur nahikoa ere.	
1. ekintza:	Sailaren programazio-agiriak diseinatu eta egitea.	
2. ekintza:	Berdintasunaren arloko sustapena eta aholkularitza, sailean generoaren ikuspegia sartzeko.	
3. ekintza:	Berdintasun-politiken garapenaren jarraipena egitea eta zuzentzeko neurriak proposatzea.	
4. ekintza:	Berdintasunaren arloan eskudun diren EJKo entitate, erakunde eta unitateekiko solasaldi tekniko eta koordinazioa bideratzea.	
5. ekintza:	Berdintasunaren arloan, saileko langileei aholkularitza, identifikazioa eta prestakuntza ematea.	
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontu-kreditua:		53.819,75 €

3. TALDEA	Helburu edo ekintzen arteko bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	1121 programa
		SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA
Arduraduna:	01. LEHENDAKARITZA. LEHENDAKARITZAREN IDAZKARI NAGUSIA / ARAUBIDE JURIKIOAREN ZUZENDARITZA	
Programaren helburua	BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATZEA SAILEAN ETA LANKIDETZA ZUZENDARITZEKIN ETA EREMUEKIN, 4/2005 LEGEA ETA BERDINTASUN PLANA AURRERA ERAMATEKO	
Berdintasuneko helburua	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sail-planaren barruan jasotako ekintzak gauzatzea	
Aurrekontu-kreditua, guztira:	5.000,00	

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIRELA erakusten duten programak.		Egitaraua: 4621
			BIKTIMAK ETA GIZA ESKUBIDEAK.
Arduraduna:	LEHENDAKARITZA / BAKE ETA BIZIKIDETZARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA / BIKTIMEN ETA GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA		
Programaren helburua	BIKTIMAK ETA GIZA ESKUBIDEAK.		
Berdintasuneko helburua	Ez da aipatzen		
1. ekintza:	Erakunde pribatuentzako diru-laguntzak emateko deialdi publikoa, giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko ekimenak burutzeko.		
2. ekintza:	Udalentzako diru-laguntzak emateko deialdi publikoa, giza eskubideen eta bizikidetzaren aldeko jarduerak burutzeko.		300.000,00
3. ekintza:	Erakundeentzako diru-laguntzak emateko deialdi publikoa, memoria historikoa berreskuratzeko jarduerak burutzeko.		105.000,00
1. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun helburuak)		60.000	
2. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun helburuak)		30.000	
3. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun helburuak)			
Zenbatespena. guztira:		100.500	

4. TALDEA	Helburu edo ekintzen artean berariaz agertu EZ arren, berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerrarazte helburu duten jarduerak edo berariazko partidak BADIREL erakusten duten programak.	Egitaraua: 1311
		KANPO-HARREMANAK
Arduraduna:	LEHENDAKARITZA / KANPO HARREMANETARAKO IDAZKARI NAGUSIA / KANPOKO EUSKAL GIZATALDEAREN ZUZENDARITZA	
Programaren helburua	ATZERRIKO GIZATALDEEKIKO ETA EUSKAL HERRITARREKIKO HARREMANAK HANDITZEA, KANPOAN EUSKAL SAREA EZARTZEA LAGUNTZEKO.	
Berdintasuneko helburua	Ez dira aipatzen, baina ondorioztatzen direnak, besteak beste, hurrengoak dira: 1. Euskal gizataldeetako emakumeek erabaki-eremuetan duten parte hartzea sustatzea. 2. Pobrezia edota gizarte-bazterkeria egoeran edo horretarako arriskua duten emakumeen egoera hobetzea.	
1. ekintza:	1. 1. Euskal Etxeei 2015. urtean emango zaizkien diru-laguntzak: 1.1.1.- Funtzionamendu-gastuak eta irabazi asmorik gabeko urteko programa eta jarduera zehatzak (IV. kapitulu), lehenetasunez honako jarduera-esparru hauetan: • Gazteria. • Emakumea. • Kanpo-irudia eta komunikazioa. • Memoria historikoaren berreskurapena. 1.1.2.- Etxeen azpiegitura- eta ekipamendu-gastuak (VII. kapitulu), honako hauek lehenetsita: • Hondamendiek eragindako kalteen konponketa. • Hesi arkitektonikoak kentzea. • Euskal Etxeen egoitzak eraikitzea. • Guneak prestatzea gazteentzat. • Gazteen eta emakumeen jarduerak aurrera eramateko teknologiak sartzea. 2. Euskal etxeentzako ekonomia-prestazioak, euskal gizataldeetan premia larrian dauden pertsonen beharrei erantzuteko 2015. urtean.	742.307,00€ 30.000€ € 202.000€
2. ekintza:	1.Munduko VI. Kongresua antolatzea: 1.1.1. Emakumeek kolektibitateetan duten egoera aztertzen duten txostenak	90.000,00€
3. ekintza:	1.Ahozko lekukotasunak biltzea: NABO + FEVA. North American Basque Organizations eta Euskal Argentinarrak Erakunde Federazioa. Jarduera bat dago erakunde horietako pertsonen ahozko lekukotasuna jasotzeko. Alde horretatik, emakumeek berek emakumeei egokitutako egoeraz emandako informazioaren bilketa berezia egin nahi da.	12.000,00€
1.1.1. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdin ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak))	1.1.1.	9.526,00€
1.1.2. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdin ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak))	1.1.1.	6.084,64€
1.2. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun helburuak)		101.802,86€
2. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak)		4.500,00€
3. ekintzaren aurrekontu-kredituaren zenbatespena (berdintasun-helburuak)		6.000,00€



Zenbatespena, guztira:

127.913,50

2. TALDEA	Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	Egitaraua: 1312 "Genero Unitatearen Finkapena"
Arduraduna:	LEHENDAKARITZA/GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA/genero eta garapen teknikaria	
Programaren helburua	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian eman beharreko genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna koordinatzea eta jarraipena ematea	
Berdintasuneko helburua	a) Garapenerako lankidetzaren tresnetan generoaren zeharkakotasuna txertatzeko irizpideak jartzea. b) Garapenerako lankidetzaren tresnetan generoaren zeharkakotasuna txertatzeko metodologia prestatzea. c) Genero-berdintasunari buruzko kontsultei erantzun eta aholkuak ematea. d) Garapenerako lankidetzaren tresnetan generoaren ikuspegitik ikuskatzea. e) Genero Politika eta dagozkion planifikazio estrategikoak egitea, jarraitzea eta ebaluatzea. f) Generoaren, jabeakuntzaren eta garapenaren alorreko programak kudeatzea. g) Planak eta programak ebaluatzea.	
1. ekintza:	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren genero Unitatearen urteko ekintzen plangintza finkatu.	
2. ekintza:	Berdintasuna eta genero ikuspegiaren inguruko barne prestakuntza planifikatu, Agentziako langile guztien parte-hartzea sustatuz.	
3. ekintza:	Agentziako web orriko Genero Unitateko atal espezifikoak eguneratu, urtean zehar emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko egindako lanaren berri emanez.	
4. ekintza:	Barne erabilerako genero eta garapeneko glosarioa egin eta, hala badagokio, Agentziaren web orrian ipini.	
5. ekintza:	Komunikazio ez sexista protokoloa burutu.	
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontu-kreditua:		54.465,36 €

3. TALDEA	Helburu edo ekintzen arteko bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	Egitaraua: 1312 LANKIDETZA-ERAKUNDEETAN GENERO-BERDINTASUNAREN ALDEKO ERAKUNDE-ALDAKETAKO PROZESUAK SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZAK
Arduraduna:	LEHENDAKARITZA/GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA/genero eta garapen teknikaria	
Programaren helburua	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian eman beharreko genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna koordinatzea eta jarraipena ematea	
Berdintasuneko helburua	ERAKUNDEAREN FUNTZIONAMENDU-MAILA GUZTIETAN GERTATZEN DIREN GENERO-DESBERDINTASUNAK DESAGERRARAZTEA: ESTRATEGIAK, EGITURAK, LAN-SISTEMAK, POLITIKAK, ERAKUNDE-KULTURA ETA ABAR	
1. ekintza:	Genero diagnostiko parte-hartzailea	
2. ekintza:	Genero-berdintasunaren aldeko Ekintza Plan Estrategikoa	
Aurrekontu-kreditua, guztira		132.000

3. TALDEA	Helburu edo ekintzen arteko bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	Egitaraua: 1312 EMAKUMEEN JABEKUNTZARAKO JARDUNALDIAK
Arduraduna:	LEHENDAKARITZA/GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA/genero eta garapen teknikaria	
Programaren helburua	SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA	
Berdintasuneko helburua	BERDINTASUN-ARLOAN SENTSIBILIZATZEA ETA EMAKUMEEN JABEKUNTZA SUSTATZEA	
1. ekintza:	Bilboko Udalarekin batera (Berdintasun, Lankidetzaren eta Hiritarretako Saila) antolatzea edukiak, hizlariak...	
Aurrekontu-kreditua, guztira		15.000



Eranskina: Herri Administrazio eta Justizia Saila

2. TALDEA	Helburuetako bat berdintasunerako politikak kudeatzea duten programak; Berdintasunerako Administrazio Unitatea.	1211 programa
		SAILAREN EGITURA ETA LAGUNTZA
Arduraduna:	05-JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOA. JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIOKO SAILBURUA	
Programaren helburua	Kabinete Zuzendaritzak sailburuari [...] ematen dio. Sailburuaren programaren jarraipena egiteaz gainera, saileko sailburuordetzen arteko koordinazioaz arduratzen da, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko politikak sustatzen ditu sailean, eta ...	
Berdintasuneko helburua	BERDINTASUN POLITIKAK BULTZATZEA SAILEAN ETA LANKIDETZA ZUZENDARITZEKIN ETA EREMUEKIN, 4/2005 LEGEA ETA IX LEGEDIAKO BERDINTASUN PLANA AURRERA ERAMATEKO	
1. ekintza:	Berdintasunerako politikak eta planak diseinatzea, lantzea eta sustatzea (VI. Plana eta 2013ko Plana).	
2. ekintza:	Neurriak eta ekintzak proposatzea, eta berdintasuneko arauen, politiken eta planen gaineko aholkuak ematea eta horiek ebaluatzea.	
3. ekintza:	Hizketa teknikoak eta organoekin nahiz unitateekin koordinatzea berdintasun arloan	
Berdintasunerako Administrazio Unitatearen aurrekontu-kreditua:		55.221,17 €

3. TALDEA	Helburu edo ekintzen arteko bat berdintasuna sustatzea, diskriminazioak indargabetzea eta/edo emakumeen eta gizonen arteko desorekak desagerraraztea duten programak.	1412. programa:
		JUSTIZIA
Arduraduna:	JUSTIZIAKO ZUZENDARIA	
